

2023

2. hiruhilekoa

EAEkoekonomiaren hiruhilabetekaria

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

EKONOMIA ETA OGASUN
SAILA
Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE ECONOMÍA
Y HACIENDA
Dirección de Economía y Planificación

EAEko ekonomiaren hiruhilabetekaria

LABURPENA	3
EKONOMIAREN INGURUNEA	5
EAE-KO EKONOMIA	9
Ekoizpena eta enplegua	9
Barne eta kanpo eskaria	14
Prezioak, soldatak eta kostuak	21
Arlo publikoa	25
Arlo finantzarioa	27
Aurreikuspenak	33

Irudien aurkibidea

Munduko ekonomia. BPGa (I)	5
Munduko ekonomia. BPGa (II)	7
Enpleguaren bilakaera	12
Etxebizitzaren hipoteken bilakaera	31
2023ko eta 2024ko aurreikuspenak (I)	38
2023ko eta 2024ko aurreikuspenak (II)	40

Taulen aurkibidea

Eskaintzaren aldagaiak	9
Jardueraren adierazleak	10
Eskariaren aldagaiak	14
Kontsumo eta inbertsioaren adierazleak	15
Esportazioen helmuga	17
Inportazioen jatorria	20
Kontsumoko prezioen indizearen banaketa	21
EAEko kontsumoko prezioen indizea	23
Hitzarmenetan adostutako soldata igoerak	24

Lan kostuak	25
Tributu itunduen bilakaera (urtarrila-martxoa)	26
Adierazle monetario eta finantzarioak (I)	28
Adierazle monetario eta finantzarioak (II)	30
Kreditu eta gordailuak.....	32
Ekonomia aurreikuspenak.....	34
Espainiako ekonomiarako aurreikuspen ekonomikoak (2023ko maiatza)	36
EAEko ekonomiarako aurreikuspenak hiruhilekoka (2023ko ekaina).....	37
Aurreikuspenak egiteko hipotesiak (2023ko ekaina)	39

LABURPENA

2023ko lehen hiruhilekoan, EAEko ekonomia %2,3 hazi zen urte arteko tasan, hots, aurreko hiruhilekoan baino sei hamarren gutxiago. Beraz, urtebete lehenago hasi zuen moteltzeko joerari eutsi dio, garai hartan %5,8ko tasa maximoa izan baitzuen, datu hori pandemiak oraindik baldintzatutako 2021eko aldiarekin alderatzen delako. Oraingo hazkundera Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak aurreikusitakoa (%2,1) baino zertxobait handiagoa da, eta testuinguru konplexu batean lortzen da, Ukrainako gerrak, nazioarteko merkataritza fluxuen berrantolaketak, inflazio handiak, diru politikaren zeinu aldaketak eta ziurgabetasun handiak baldintzatuta. EAEko ekonomiak lortutako emaitza nabarmen handiagoa da Europar Batasunari eta euroaren eremuari dagokiena baino (%1,3 bi kasuetan).

Sektore ekonomiko guztiek hazkunde positiboa eskuratu zuten aurtengo lehen hiruhilekoan. Hala ere, eraikuntzaren susperraldia eten egin zen eta bere balio erantsia %0,9 baino ez zen handitu, aurreko bi hiruhilekoetan lortu zuen %2tik urrun. Sektorearen kostuen igoera moteldu den arren, inflazioari aurre egiteko interes tasen igoerak etxebizitza berrien eskaria geldiarazi du, bai eta beste eraikuntza proiektu batzuk martxan jartzea geroratu ere. Azken bi urteetan metatutako hobekuntza gorabehera, sektorea pandemia aurreko jarduera maila baino zortzi puntu beherago dago oraindik.

Industriak aurreko hiruhilekoetan jada erakutsi zuen hazkunde erritmoa moteltzeko joerarekin jarraitu du, urte arteko tasa %1,1eko hazkundera iritsi arte, aurreko hiruhilekoetako tasen oso azpitik. Halaber, aipatu behar da sektore horrek ere ez duela lortu pandemia hasi aurreko jarduera maila erabat berreskuratzea, nahiz eta sektore horretan une horrekiko aldea bi puntukoa baino ez den. EAEko industriaren bilakaera Europako herrialde askotan bizi denaren antzekoa da. Herrialde horietan ere jardueraren galga handia hautematen da, eskaera berri gutxiago sartu direlako eta eskariak behera egin duelako.

Aipatutako gainontzeko sektoreetan ez bezala, zerbitzuek lau hamarren baino ez zuten moteldu hazkunde erritmoa, %2,9an kokatu arte. Horri esker, azken bi urteetan lortutako emaitza onak luzatu dituzte, balio erantsia pandemia hasi aurrekoa baino maila altuagoan kokatzeko aukera eman baitiete. Hiruhileko honetan ere, nabarmentzekoa da merkataritza, ostalaritza eta garraioa barne hartzen dituen taldearen intentsitatea (%5,4), ekonomiaren batez besteko hazkundera aise bikoizten baitu. Aitzitik, sektore publikoari gehien lotutako jarduerak (administrazio publikoa, hezkuntza, osasuna eta gizarte-zerbitzuak) balio erantsia %1,2 handitu zuten, aurreko datua baino pixka bat gutxiago. Azkenik, gainerako zerbitzuek (%2,1) pare bat hamarren bizkortu zuten aurreko emaitza.

Eskariaren ikuspegiak berriz ere erakusten du kanpo saldoak ekarpen esanguratsua egin diola BPGaren hazkundeari, puntu erdi ingurukoa izan baita. Zifra hori 2022ko lehen erdian erregistratutako kopuruetatik urruntzen da, eta posizio neutroago batera hurbildu da. Ondasun eta zerbitzuen kanporako esportazioak (atzerrikoa gehi Estatuko gainerako erkidegoetakoa), balio errealetan, %6,3 hazi ziren, aurreko hiruhilekoan baino pixka bat gehiago, euroaren eremuko herrialde batzuek eta, bereziki, Espainiako ekonomiak izan zuten gorakada txikiak lagunduta. Inportazioak, berriz, % 5,4 gehitu ziren.

Barne eskariak puntu erdi bat moteldu zuen hazkunde erritmoa, eta %1,8ko aldakuntza tasa eskuratu zuen. Bi magnitude nagusien artean, kapital eraketa gordinak izan zuen intentsitate galera handiena, aurreko hiruhilekoko %2,9ko tasatik aurtengo lehen hiruhilekoko %1,6ko tasara apaldu baitzen. Balazta antzekoa da bi inbertsio motetan, baina ekipamendurako ondasunetan egiten denak irudi dinamikoa ematen du oraindik (%2,4), nahiz eta 2021ean eta 2022an izandako igoera bikainetatik urrun egon. Bestalde, azken kontsumoak bi hamarren baino ez zuen leundu hazkundera, eta urte arteko %1,9an kokatu zen. Familien kontsumoa moteldu egiten da inflazioak erosteko ahalmenean duen eraginagatik, nahiz eta enpleguaren sorrerak agregatuari eusten dion. Herri administrazioen gastua, bestalde, ia ekonomia osoaren erritmo berean hazi zen.

BPGaren bilakaera positiboa lanaldi osoko lanpostu baliokideen sorrera garrantzitsu batera igaro da, lehen hiruhilekoan %1,5ean estimatu dena. Horri esker, enpleguak milioi bat lanpostutik gora jarraitzen du. Azken urtean sortutako 15.000 lanpostu berrietatik, ia 13.000 zerbitzu jardueretakoak izan ziren; industrian 1.500 eta, azkenik, eraikuntzan 500.

Ia herrialde garatu guztietan bizi den inflazio handiak moderazio txiki bat erakusten hasi da. EAEren kasuan, maiatzeko KPIa, ezagutzen den azken hilekoa baita, %3,4an kokatu zen, aurreko hilean erregistratutako %4,2aren aldean. Bestalde, azpiko inflazioa apirileko %6,8tik azken hilabete ezaguneko %6,4ra igaro da. Halaber, ekainerako jaitsiera gehigarri esanguratsua aurreikusten da.


Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzaren aurreikuspenaren arabera, EAEko BPGaren moteltzeak aurrera jarraituko du aurten ere, eta %1,6ko batez besteko hazkundera izango du. Datorren urterako, aurreikuspenaren arabera, hazkundera %2,1ekoa izango da. Hasiera batean, hiru sektore nagusiek hazkunde horretan parte hartzea espero da, baina zerbitzuak izango dira dinamismo handiena erakutsiko dutenak. Bestalde, kanpo saldoak hamarrenen bat kendu ahal izango dio aurtengo hazkundeari, eta datorren urtean posizio neutro batera igaroko da. Azkenik, enplegua sortzen jarraituko da, bai aurten, bai 2024an, %1,1eko eta %1,6ko erritmoetan, hurrenez hurren; beraz, 11.000 eta 16.000 lanpostu garbi inguru sortuko dira bi urte horietan.

EKONOMIAREN INGURUNEA


2023. urtearen hasieran, jarduera ekonomiko globala aurreikusitakoa baino indartsuagoa izan zen. Txinako ekonomia, covid zero politika amaitu eta gero, berriro ireki izanak bultzada handia eman zion munduko ekonomiari, bai eta AEBetako lan merkatuaren erresistentzia nabarmenak ere, herrialde horretako diru politika nabarmen gogortu zen arren. Inflazioak, beste aldetik, apaltzen jarraitu zuen, baina inflazioaren azpiko presioak etengabe handiak izaten ari dira oraindik.

Munduko ekonomia. BPGa (I) Urte arteko aldakuntza tasak

ELGA



Txina



Iturria: ELGA.

Oro har, energiaren prezioen jaitsierak, eskaintzan botila lepoak murrizteak eta enpresei eta familiei bideratutako zerga politikaren bultzadak lagundu zuten ekonomiek erresistentzia handia erakutsi zezaten eta enpresen eta familien konfiantza berreskuratzen joan zedin. Horiek horrela, garatzeko bidean dauden ekonomiei eta ekonomia aurreratuei buruzko datu berriak espero baino hobek izan ziren, baina ez da baztertzeko urtearen bigarren erdia ahulagoa izatea, interes tasen igoera oldarkorrek ekonomiaren jarduerara transmititzen diren heinean. Dinamismo txikiago horren irakurketa positiboa litzateke horrek inflazioa murriztea ekarriko lukeela, batez ere azpiko osagaiei dagokienez, izan ere, oraindik beherantz joatearen aurkako nolabaiteko jarrera erakusten ari baitira.

Zehatz-mehatz adierazita, Asian, Txinak urte arteko %4,5eko hazkundea eskuratu zuen aurtengo lehen hiruhilekoan, jarduera ekonomikoak urte aldaketaren inguruan izan zuen atzerakadaren

ondoren, covid zero politika kentzearekin eta, ondorioz, kutsatzen gorakadarekin lotuta. Kontsumoa eta zerbitzuen jarduera izan ziren hazkundearen motorra, eta manufakturak eta inbertsioa konpentsatu zituzten, azken horiek ahul jarraitu baitzuten. Halaber, higiezin sektoreak suspertzeko seinale hasiberriak erakutsi zituen, eraikuntzak amaituta eta bizitegi higiezinak goranzko bidean salduta. Kontsumitzaileen konfiantza suspertzen ari da, eta kredituaren hazkundera bizkortzen ari da. Beraz, datorren hiruhilekoan jarduerak gora egiteko aukera izango du. Are gehiago, iazko oinarri konparatibo baxuak eragindako eragin estatistikoa kontuan hartuta, Shanghaikoa bezalako konfinamendu garrantzitsuengatik. Maiatzeko PMI indize konposatuak teoria hori babesten du. 55,6ko balioarekin, 2021eko urtarriletik izandako erregistrorik onena da.

Herrialde aurreratuak, bestalde, %1,5 hazi ziren 2023ko lehen hiruhilekoan, aurreko hiruhilekoan baino hamarren bat gehiago. Hazkunde horri esker, Errusiak Ukrainari egindako inbasioarekin hasitako beheranzko joera iraultzea lortu zen, horrek nabarmen murriztu baitu jarduera ekonomikoaren aurrerapena. Era berean, inflazioa erlaxatu egin zela ikusi zen, KPIa %7,4an kokatu baitzen apirilean, aurreko hilabeteko prezioen urte arteko igoera baino hiru hamarren beherago, eta bizitzaren kostua gutxien garestitu zen hilabetea 2022ko urtarriletik. Azpiko inflazioa, elikagai freskoen eta energiaren hegakortasuna alde batera uzten baitu, %7,1 izan zen; martxoan, berriz, %7,2.

ELGAko herrialdeen hazkunde horren euskarri nagusia AEBetako ekonomiaren bilakaera bizia izan zen, %1,6 hazi baitzen, aurreko hiruhilekoan baino zazpi hamarren gehiago, eta berriro ere erritmoa biziagotzen hazi zen, 2022ko amaieran izandako moteltze nabarmenaren ondoren. Hazkunde horrek kontsumo pribatuaren indarra islatu zuen, urtarrileko zergen jaitsiera apartaren ondoren bultzada berreskuratu baitzuen. Orobat, hazi egin ziren esportazioak, gobernuaren gastua eta bizitegiak ez diren inbertsioak ere. Horrek indargabetu egin zuen etxebizitza inbertsioaren eta inbentarioetako inbertsio pribatuaren uzkurdua handia. Azken hori, neurri batean, Silicon Valley Bank (SVB) bankuaren porrotak bankuen sektorean eragindako tentsioen gertakari labur baina gogorraren ondorio izan zen, eta horrek kreditu-baldintzak gogortzea ekarri zuen. Bien bitartean, lan merkatuak bilakaera ona izaten jarraitu zuen. Maiatzean ia 340.000 enplegu garbi sortu ziren, aurreikusitakoa baino askoz gehiago, eta langabezia-tasa %3,7 izan zen.

Japonian, jarduera ekonomikoa indartsu suspertu zen aurtengo lehen hiruhilekoan. Barne produktu gordinean hautemandako errebote hori familien kontsumo pribatuaren bilakaeraren ondorio izan zen, BPGaren %60 biltzen baitu magnitude horrek, %2,5 hazi baitzen, eta 2022ko laugarren hiruhilekoan, berriz, %0,8. Konfiantzaren gorakadak agregatu horri eragin positiboa emateaz gain, inbertsioari ere mesede egin zion eta %3,2ra arte bultzatu zen, 2019ko hirugarren hiruhilekotik izan duen aurrerapen handiena. Horren guztiaren ondorioz, Japoniako ekonomia %1,8 hazi zen. Hala eta guztiz ere, herrialde horretako epe laburreko bilakaerak zalantzakoa

izaten jarraitu zuen. Esportazioek aurrerapen txikiena izan zuten bi urtean, eta soldata errealek behera egiten jarraitu zuten, eta horrek ilundu egin zituen gorakada iraunkor baten igurikimenak. Inflazioaren bilakaerak ere ez dio erraza egiten Japoniako gobernuari hazkundera sendotzea. Zehazki, apirilean KPIa %3,5ean kokatu zen, baina datu kezkarria azpiko inflazioaren eskutik iritsi zen, 40 urtean lehen aldiz %4tik gorakoa izan baitzen. Elikagaien prezioen igoera (%9,0) dago igoera horren atzean.


Munduko ekonomia. BPGa (II)

Urte arteko aldakuntza tasak

AEB



Europar Batasuna 27



Iturria: Eurostat eta BEA.

Europar Batasunean, jarduera ekonomikoa %1,0 hazi zen urte batetik bestera, eta %0,1 hiru hilekoen artean; horri esker, atzeraldi teknikoaren mamua urrundu egin zen. Euroguneak ez zuen zorte bera izan, hiru hilekoen arteko bigarren hazkunde negatiboa metatu baitzuen, nahiz eta jaitsierak txikiak izan. Bi eremuen arteko aldea Alemaniako ekonomiaren bilakaerak markatzen du; izan ere, ekonomia horren pisuak gehiago baldintzatzen du euroaren eremua Europar Batasuna baino. Horrela, Alemaniako ekonomiaren uzkurdurak, bai urte arteko tasetan, bai hiru hileko artekoetan, euroaren eremua kaltetu zuen, eta Europar Batasunak, aldiz, gutxigatik, eremu positiboan mantentzea lortu zuen. Zehazki, kontinente zaharrea kanpoko eskariak bederatzi hamarreneko ekarpena egin zion hazkunderari. Esportazioen dinamismo handiagoak, 2023an ekonomia globala ondo abiarazteari esker, neurri batean, Txinako ekonomia erabat ireki zelako, kanpo eskariari barne eskariaren ahultasun garrantzitsua konpentsatzea ahalbidetu zion. Izan ere, lan merkatuen indarra eta inflazio handiaren eragin negatiboari eusten laguntzen ari diren laguntza fiskaleko neurriak gorabehera, hamarren batekin baino ez zion lagundu BPGaren hazkunderari.

Ekonomia nagusiei dagokienez, urte arteko tasetan Espainia, Zipre eta Maltaren dinamismoa nabarmendu zen, guztiak %3,0tik gorako hazkunde tasak lortuta. Urrunago, baina baita dinamismo handiarekin ere, Italia kokatu zen (%1,9). Bestalde, Frantzia (%0,9) eskualdeko mailaren azpitik hazi zen, neurri batean kontsumo pribatuaren uzkurduraren ondorioz, zeinak, 2022ko azken hiruhilekoan erregistratutakoa baino joera hobea erakutsi arren, deprimituta jarraitu baitzuen.

Alemania, azkenik, urte arteko %0,5 uzkurdu zen, eta hiruhileko arteko tasetan atzeraldi teknikoan sartu zen, BPGaren %0,3ko jaitsiera izan baitzuen, eta, horrela, urteko azken hiruhilekoko -%0,5aren ondoren, bigarren jaitsiera izan zuen jarraian. Hango kontsumo pribatua (-%1,5) nabarmen jaitsi zen eta inbertsioa %0,3 modu apatikoan hazi zen. Inflazio handiak errenta erabilgarria oztopatzen jarraitu zuen eta ziurgabetasunaren iraupenak kontsumoko gastua geldiarazi zuen (automobilen matrikulazioak jaitsi egin ziren hiruhileko horretan, batez ere ibilgailu elektrikoak erosteko pizgarriak kentzearen ondorioz). Hala ere, Alemaniako institutu ekonomiko nagusiek aurreikusi dute herrialdeak atzeraldia saihestuko duela 2023an, eta %0,3ko hazkundera izango duela iragarri dute. Oraingoz, hobekuntza hori ez dago oso argi. Maiatzeko zerbitzuen PMI indizea (57,2) hedapen argian dago, baina manufacturena pandemia beteko mailara jaitsi da (43,2). Bigarren seihilekora arte itxaron beharko da aurreikuspen horiek berresteko.

Lan merkatuak, berriz, dinamismo handiari eutsi zion. Europar Batasuneko langabezia tasa %6,0an mantendu zen, eta urtebete darama maila horretan finkatuta. Europako estatistika bulegoaren kalkuluen arabera, apirilean ia 13,0 milioi pertsonak ez zuten lanik, eta horietatik 11,0 milioi eurogunean zeuden. Horrek esan nahi du urtean 218.000 langabe gutxiago daudela Europar Batasunean, eta 190.000 gutxiago eurogunean. Hogeita zazpien artean, langabezia tasarik handienak Espainiak (%12,7), Greziak (%11,2) eta Italiak (%7,8) izan zituzten. Aitzitik, langabezia zifrarik txikienak Txekiar Errepublikan eta Polonian (biak %2,7), Maltan (%2,8) eta Alemanian (%2,9) izan ziren.

Europar Batasunetik kanpo, Erresuma Batuak atzeraldia saihestea lortu zuen, baina aurreikuspen ekonomikoek ahulak izaten jarraitu zuten. Zehatzago, BPGak urte arteko %0,2ko hazkunde eskasa izan zuen, hau da, hiruhileko arteko %0,1ekoa. Tasa hori errepikatu egin da bigarren hiruhilekoz jarraian. Osasun, hezkuntza eta administrazio publikoko grebek kontsumo pribatua eta inbertsio apatikoak eragin zituzten, ia hazkunderik gabe. Esportazioek bakarrik erakutsi zuten nolabaiteko dinamismoa, inguruko ekonomien tonu onak lagunduta. Horri guztiari inflazioa gehitu behar izan zitzaion, %10,0tik jaitsi arren, oraindik ere kota handiegietan mantentzen dena (%8,7 apirilean) eta horren azpiko tasa 1992ko maximoetara igo zena. Atzeraldi teknikoan sartzeko arriskua dago, baina azken proiektzioak, horien artean Ingalaterrako Bankuak (BoE) zabalduak, baikorrak dira. Erakunde horrek aurreikusten du Erresuma Batuko BPGa %0,25 haziko dela 2023an eta %0,75, berriz, 2024an.

EAE-KO EKONOMIA

Ekoizpena eta enplegua

EAEko ekonomiak duela urtebete hasi zuen moteltzeko prozesuarekin jarraitu zuen eta 2023ko lehen hiruhilekoan %2,3 hazi zen, hau da, aurreko hiruhilekoan baino sei hamarren gutxiago eta urtebete bat lehenago erregistratu zuen tasa baino 3,5 puntu gutxiago. Azken alderaketa horri mesedea egiten dio pandemiak eragindako uzkuartzealdi batekin alderatuta egotea. Oraingo hazkunde tasa esanguratsutzat hartu behar da oraindik eta BPGaren susperraldia osatzeko balio izan du, 2019ko laugarren hiruhilekoan, birusa Europan hedatu aurreko azken aldiak, alegia, zegoena baino pixka bat gorago kokatu baita orain. Hiruhilekoaren emaitza Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzaren martxoko aurreikuspena baino pixka bat handiagoa da, urte arteko %2,1eko tasa espero baitzuen, eta balio handiagoa hartzen du lortu den ingurune zaila kontuan hartuz gero: Ukrainako gerra, Errusiarekiko merkataritza murrizketak, polarizazio geopolitikoa, ziurgabetasuna, inflazio tasa handia eta diru politikaren aldaketa. EAEko ekonomiaren hazkundeak Europar Batasunean eta euroaren eremuan lortutako emaitzak (%1,3 bi kasuetan) gainditzen ditu.

ESKAITZAREN ALDAGAIK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2021	2022	2022				2023
			I	II	III	IV	I
BPG erreala	5,9	4,4	5,8	5,0	3,8	2,9	2,3
Nekazaritza eta arrantza	21,9	0,8	-1,7	-3,4	7,8	0,7	7,4
Industria eta energia	6,1	4,6	6,5	5,9	3,6	2,5	1,1
- Manufakturen industria	5,6	4,3	5,9	5,7	2,6	2,8	1,4
Eraikuntza	4,5	2,0	1,9	1,3	2,3	2,4	0,9
Zerbitzuak	5,8	4,7	6,2	5,4	4,2	3,3	2,9
- Merkat., ostalaritza eta garraioa	11,8	10,7	13,1	13,8	9,8	6,5	5,4
- AA. PP., hezkuntza eta osasuna	3,1	1,8	3,0	1,1	1,0	1,9	1,2
- Gainontzeko zerbitzuak	4,0	2,8	3,9	2,7	2,5	1,9	2,1
Balio erantsi gordina	5,9	4,5	6,0	5,2	4,0	3,0	2,4
Ekoizkinen gaineko zerga garbiak	6,1	2,9	3,9	2,9	2,6	2,1	1,6

Iturria: Eustat.

Lehen hiruhilekoan jaso den moteltzea EAEko ekonomiaren hiru sektore nagusietan gauzatu da, bereziki industrian eta eraikuntzan. Zerbitzuetan, aldiz, intentsitatearen galera ez da puntu erdi batera iritsi. Industriak %1,1eko urte arteko tasa eskuratu zuen, manufakturrek pixka bat handiagoa (%1,4) lortu zuten bitartean. Hazkundearen moteltze hori bat dator Europako beste ekonomia batzuetan ere gertatu denarekin, ziurgabetasunak, eskariaren murrizketak eta eskaera berrien faltak baldintzatuta. Une honetan, EAEko industriak pandemian galdutako balio erantsiaren zati handi bat berreskuratu du, baina 2019ko amaieran izan zuen maila baino bi puntu beherago jarraitzen du.

JARDUERAREN ADIERAZLEAK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2021	2022	2022				2023
			I	II	III	IV	I
Industria							
Industria produkzioaren indizea	10,5	5,7	7,9	7,4	4,2	3,3	2,2
Negozio zifren indizea	18,2	25,6	21,5	38,7	22,8	19,9	18,9
Industria giroaren indizea	-10,2	1,1	6,5	4,7	0,4	-7,2	-12,7
Gizarte Segurantzako afiliazioa	-0,5	1,2	1,5	1,1	0,8	1,2	1,1
Eraikuntza							
Eraikuntzaren koiuntura indizea	7,8	8,3	-0,7	8,9	11,7	13,3	3,0
Etxebizitza berriak eraikit. oniritziak	39,6	-13,7	0,2	-34,9	3,1	-22,2	-39,7
Etxebizitzaren salerosketak	21,3	9,2	14,1	6,0	10,3	5,8	-0,8
Gizarte Segurantzako afiliazioa	1,1	1,7	1,9	1,7	1,5	1,6	1,3
Zerbitzuak							
Hegazkinen bidezko bidaiariak	57,5	100,7	382,5	272,1	53,2	41,4	61,0
Hoteletan igarotako gaualdiak	73,4	54,2	176,5	146,5	20,2	20,7	30,4
Negozio zifren indizea	15,4	16,2	18,1	20,5	14,2	12,6	9,8
Zerbitzuen koiuntura indizea	6,0	2,9	4,8	5,2	0,0	1,6	0,3
Gizarte Segurantzako afiliazioa	1,2	2,4	2,9	2,9	2,0	1,8	1,3

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustat, INE, Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerio, Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agenda Ministerioa, Gizarte Segurantza eta AENAREN datuetan oinarrituta.

Industriaren moteltzea sektoreko produkzioaren datuetan ere nabari da, urtearen hasieratik urte arteko jaitsiera txikiak eta hazkunde tasa esanguratsuak tartekatzen baititu, hazkunde saldo apala utzi arte, balio erantsiarentzat adierazitakoarekin bat datorrena. Energiaren ekoizpena da gaur egun bilakaerarik txarrena erakusten duen atala, sei hilabetez tasa negatiboak kateatu baititu, 2022ko zati handiengan, prezioak izugarri igo ziren garaian, alegia, bultzada handia izan eta gero. Aitzitik, ekipamendurako ondasunek eta bitarteko ondasunek bilakaera sendoa

erakutsi dute lehen hiruhilekoan, nahiz eta zalantza batzuk izan apirilean, argitaratutako azken hilabeteen. Bestalde, kontsumo iraunkorreko ondasunen ekoizpenak emaitzak hobetzen ditu, baina ez da iristen kontsumo iragankorreko ondasunek erakusten duten dinamismora, azken horiek aldaketa tasak bizkortu baitituzte.

Industriaren moteltzearekin batera, enpresen igurikimenek okerrera egin dute aurtengo lehen bost hilabeteetan, industria giroari buruz aurkeztu diren estatistiketatik eratortzen denez. Izan ere, lehen hiruhilekoko batez besteko balioa aurreko hiruhilekoko baino bost puntu txikiagoa da, eta jadanik ezagunak diren apirileko eta maiatzeko datuek hiru puntu gehiago egin dute okerrera. Alde batetik, eskari zorroari buruzko erantzunak okerrera egin dute nabarmen, eta ekoizpenaren joera, berriz, gero eta negatiboagoa da. Beste aldetik, saldu gabe dauden amaitutako produktuen stocka asko handitu da udaberrian. Enpleguari buruzko igurikimenek nota positiboa ekarri dute, 2022ko bigarren erdialdearen aldean oso bilakaera positiboa erakusten baitute.

Eraikuntzak ere moteltzeko joera erakutsi zuen urtearen hasieran, balio erantsiaren %0,9ko hazkundearekin, hau da, 2022an lortutako batez besteko erritmoaren erdia baino gutxiagorekin. Iaz lehengaiak eta eskulanak bizi zuten garestitze handiaren eragina leundu ondoren, orain presioak higiezin merkatuan eta beste proiektu batzuk abian jartzean eragiten duten interes tasa handietatik datoz. Intentsitatearen galera bai eraikinen atalean bai obra zibilean gertatu zen, baina eraikuntzaren koiuntura indizeak adierazi duenez, lehenengoa geldialditik gertuago dago. Halaber, etxebizitzaren salmenta %1 inguru murriztu zen lehen hiruhilekoan urte arteko tasan.

Lehen ere adierazi den bezala, zerbitzuek aipatu bi sektoreek baino moderazio leunagoa izan zuten. Kasu horretan, balio erantsia %3,3 hazi zen 2022ko laugarren hiruhilekoan, eta %2,9 aurtengo lehen hiruhilekoan. 2022an EAEko ekonomiaren hazkundera industriaren eta zerbitzuen sendotasunean oinarritu zen, antzeko aldakuntza tasak izan baitzituzten, baina susperraldiaren pisua gero eta gehiago geratzen ari da azken sektore horretan.


Zerbitzuen bultzada, neurri handi batean, merkataritza, ostalaritza eta garraioa barne hartzen dituen atala izaten ari den bilakaera bikainetik dator, urte arteko balio erantsia %5,4 handitu baitzuen, gainerako jarduerena baino askoz ere gehiago. Emaitza horri esker, azkenean pandemia hasi aurretik zuen mailan kokatu da berriro. Bestalde, sektore publikoari gehien lotutako jarduerak (administrazio publikoa, osasuna, hezkuntza eta gizarte zerbitzuak) %1,2 gehitu ziren, ekonomia osoaren oso azpitik. Azkenik, gainerako zerbitzuek (finantzarioak, osagarriak eta bestelakoak barne) %2,1 hobetu zuten balio erantsia, aurreko datua baino bi hamarren gehiago.

Zerbitzu jardueren artean, nabarmentzekoa da turismoak une ona bizi duela pandemiari aurre egiteko ezarritako murrizketak kendu zirenetik. Hala, Araba, Bizkai eta Gipuzkoako aireportuetatik pasa ziren pertsonen kopurua 1,8 milioitik gorakoa izan zen, eta maximo berri bat ezarri zuen, 2019ko datuen gainerik. Era berean, hotel establezimenduetako gaualdiek ere nabarmen egin dute gora aurtengo lehen lau hilabeteetan, eta 1,8 milioi gaualditik gora izan dira; horiei apartamentu turistikoetan eta landa ostatuetan egindakoak gehitu behar zaizkie, horiek ere erritmo onean igo baitira.


BPGan erregistratu den moteltzea enpleguaren bilakaeran ere nabarmendu da, lehen hiruhilekoan %1,5 hazi baitzen, hau da, aurreko hiruhilekoan baino lau hamarren gutxiago. Guztira, azken hamabi hilabeteetan lanaldi osoko 15.000 lanpostu baliokide inguru sortu direla kalkulatu da, eta horiei esker 2022ko bigarren erdian lortu ziren milioi bat enpleguko zifra finkatu egiten da. Sortutako lanpostu gehienak (ia 13.000) zerbitzu jardueretakoak izan dira, eta sektore horrek EAEko enplegu guztiaren %73 biltzen du jada. Industriak 1.500 lanpostu berri izan ditu, guztizkoaren %20, eta eraikuntzak ia 700. Lehen sektoreak 200 enplegu baino gutxiago galdu ditu azken urtean.

Enpleguaren bilakaera Urte arteko aldakuntza tasak

Kontu ekonomikoak



Afiliazioa



Iturria: Eustat eta Gizarte Segurantzak.

Euskadin enpleguak gora egiten jarraitzen duen arren, ez da hautematen orain okupatutako pertsonen proportzio handiagoa dagoenik. Hain zuzen ere, BJAren lehen hiruhilekoari dagozkion datuek adierazten dute okupazio tasa (16 urte eta gehiagoko biztanlerian enplegua duen proportzioa) nahiko konstante mantendu dela %51,4an, duela urtebete zenbatetsitako tasa

baino hamarren bat gehiago soilik. Gizonen kasuan, gaur egungo okupazio tasa bat dator 2022ko lehen hiruhilekoan zegoenarekin (%56,0), eta emakumeen artean, berriz, hobekuntza txiki bat ikus daiteke, %47,2raino. Beraz, bi sexuen artean dagoen diferentziala bi hamarrenetan baino ez da zuzendu.

Lan merkatuko parte hartzeari dagokionez, aurtengo lehen hiruhilekoan beherakada txiki bat hauteman da aurreko datuen aldean. Zehatz-mehatz adierazita, partaidetza tasa hamarren bat jaitسي da, %56,3ra arte. Balio horiek %61,1 dira gizonentzat eta %52,0, berriz, emakumeentzat. Zentzu horretan, emakumea lan merkatuan sartzeko joerari dagokionez, nolabaiteko galga ikusten da, bai gazteenetan (25 urtetik beherakoak), bai zaharretan (45 urte eta gehiago), baina erdiko adin tartean bere horretan jarraitzen du, 2,5 puntu hobetu baita, biztanleriaren %86,6ra iritsi arte. Hala ere, tasa hori adin tarte bereko gizonena (%90,9) baino lau puntu txikiagoa da oraindik.

Enpleguak lehen hiruhilekoan erakutsi zuen bilakaera onak jarraipena izan du bigarren hiruhilekoko lehen bi hilabeteetan ere, Gizarte Segurantzako afiliazioaren informazioaren arabera. Hala, lehen hiruhilekoan afiliazioa %1,3 hazi ondoren, apirileko eta maiatzeko batez bestekoa %1,6ra igo da, eta, lehen aldiz, milioi bat afiliazio baino gehiago daude. Dinamismo handiagoa nabari da emakumeen kontratazioan, %1,8raino iristen baita, gizonen kasuan erregistratutako %1,4aren aldean. Diferentzial txiki hori azal daiteke bi hilabete horietan afiliazioak emakumeak nagusi diren jarduera batzuetan izan duen gorakadagatik, hala nola hezkuntzan eta merkataritzan.

Langabezia tasa %8,7 izan zen lehen hiruhilekoan, aurreko urtekoa baino lau hamarren txikiagoa, baina aurreko hiruhilekoan erregistratutako tasa baino bi hamarren handiagoa. Sexuaren araberrako aldeak mantendu egin dira, eta emakumeen langabezia tasak (%9,3) gizonena (%8,3) baino puntu bat handiagoa izaten jarraitzen du. Erregistratutako langabeziari dagokionez, urte arteko jaitsierak esanguratsua izaten jarraitzen du (%6 inguru azken hilabeteetan), eta egoera horretan dauden pertsonen guztizkoa 107.300etik jaitسي da, 2008ko amaieratik izandako zifrarik txikiena. Horietatik, 61.150 emakumeak dira eta 45.100 gizonak.

BPGaren eta enpleguaren bilakaerak %0,8ko produktibitate irabazia utzi du lehen hiruhilekorako, batez besteko historikoaren ildotik. Deigarria da industriaren hobekuntza txikia (%0,3), enpleguak asko igo delako, balio erantsiaren bilakaera kontuan hartuta. Aitzitik, zerbitzuen irabazia (%1,0) esanguratsua eta batez besteko historikoa (%0,5) baino handiagoa izan zen. Azkenik, eraikuntzak atzerapausoa eman zuen produktibitatean (-%0,2), balio erantsiaren igoera baino enplegu gehiago sortu baitzuen. Gertaera hori puntualki gerta daiteke, baina ez da epe ertainean mantenduko.

Barne eta kanpo eskaria

EAEko ekonomiak 2023ko lehen hiruhilekoan bizi izan zuen moteltzeko joera bi eskarietatik etorri zen, baina protagonismo handiagoa izan zuen barne eskaeran. Zehazkiago adierazita, hazkunde txikiagoko sei hamarrenetatik, lau barne eskariaren portaerari egotz dakizkioke, eta beste biak kanpo saldoaren jardunari. Hala eta guztiz ere, kanpo eskariak ekarpen positiboa egin zion oraindik BPGaren hazkunderari, lau hamarren ingurukoa, aurreko urtean erregistratutako ezohiko balioetatik urrun eta osagai horren ezaugarri izan ohi den neutraltasunetik gertuago. Bai ondasun eta zerbitzuen esportazio errealek bai inportazioek hazkunde erritmoa bizkortu zuten aurreko hiruhilekoaren aldean, %6,3ko eta %5,4ko urte arteko tasetara iritsi arte, hurrenez hurren.

ESKARIAREN ALDAGAIK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2021	2022	2022				2023
			I	II	III	IV	I
BPG erreala	5,9	4,4	5,8	5,0	3,8	2,9	2,3
Gastua azken kontsumoan	5,2	2,2	2,9	1,8	2,0	2,1	1,9
- Familien gastua kontsumoan	5,6	3,0	3,5	3,2	2,7	2,3	1,7
- Adminis. gastua kontsumoan	3,9	-0,4	0,7	-2,9	-0,4	1,2	2,4
Kapital eraketa gordina	6,0	4,4	4,7	4,8	5,1	2,9	1,6
- Ekipamendu ondasunak	10,9	6,9	8,6	8,4	7,3	3,6	2,4
- Gainontzeko inbertsioa	3,1	2,7	2,2	2,4	3,7	2,5	1,1
Barne eskaria	5,4	2,7	3,3	2,5	2,7	2,3	1,8
Esportazioak	12,7	10,4	13,7	13,9	9,4	5,0	6,3
Inportazioak	11,6	7,6	9,4	9,6	7,6	4,0	5,4

Iturria: Eustat.

Barne eskariak eutsi egin zion 2022 urte osoan erakutsi zuen moteltzeko prozesuari, eta 2023aren hasieran %1,8ko urte arteko tasa eskuratu zuen, aurreko datua baino puntu erdi bat gutxiago, alegia. Agregatu horren bi osagai nagusien artean, kapital eraketa gordinak geldiarazi zuen gehien bere bilakaera, azken kontsumoak hazkunde erritmoa bi hamarren baino ez baitzuen moteldu. Azken kontsumoaren egonkortasun horrek bilakaera kontrajarriak ezkututzen ditu bi ataletan; izan ere, familien kontsumoak prezioen igoeraren eragina pairatu zuen, eta, aldi berean, administrazio publikoen kontsumoak modu irmoan bultzatu zuen

agregatua. Zehazki, kontsumo publikoa urte arteko %2,4 hazi zen hiruhileko horretan, aurreko hiruhilekoetako balioen oso gainetik, eta urrundu egin da 2022 osoan izan zuen jaitsieratik.

Lehenago ere adierazi den bezala, familien kontsumoak moteldu egin zuen bultzada, inflazio handiak erosteko ahalmenean izan duen eraginaren ondorioz. Hala, aldagai hori 2022ko laugarren hiruhilekoan %2,3 hazi ondoren, aurtengo lehen hiruhilekoan %1,7 handitu da. Aldakuntza tasa hori oso gertu dago enplegua sortzeari dagokionetik (%1,5), zeina kontsumoaren bultzatzaile nagusia baita pandemian zehar metatutako aurrekia murrizten joan eta soldata errealak apur bat negatiboak diren une batean.

KONTSUMO ETA INBERTSIOAREN ADIERAZLEAK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2021	2022	2022				2023
			I	II	III	IV	I
Kontsumoa							
Azalera eta kate handietako salmentak	0,2	-1,4	-1,0	-1,2	-0,9	-2,4	-0,3
Txikizkako merkataritza indizea	3,5	2,9	5,0	5,3	1,4	0,2	1,7
Kontsumo ondasunen ekoizpena	12,1	4,5	8,7	3,5	2,9	3,1	3,0
Kontsumo ondasunen inportazioa	20,0	17,6	11,0	48,3	16,1	1,1	15,5
Turismoen matrikulazioa	-19,7	-8,8	-14,0	-9,8	-11,1	-0,5	18,7
Inbertsioa							
Ekipo ondasunen ekoizpena	13,3	9,4	14,8	13,0	4,1	5,9	5,4
Ekipo ondasunen inportazioa	21,1	21,3	19,6	23,5	26,8	16,2	26,3
Zamaketarako ibilgailuen matrikulazioa	7,0	-13,5	-22,6	-23,5	-21,3	22,8	8,3
Etxebizitza berriak eraikitzeke oniritziak	39,6	-13,7	0,2	-34,9	3,1	-22,2	-39,7
Lizitazio ofiziala	63,2	40,7	43,9	-19,7	108,9	69,2	17,6

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustat, Aduana, Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agenda Ministerioa, Seopan eta Trafiko Zuzendaritza Nagusiaren datuetan oinarrituta.

Kapital eraketa gordinak bilakaera bizia eta egonkorra erakutsi zuen, bizkortzeko puntu txiki batekin, iazko lehen hiru hiruhilekoetan, baina azken tartean apaltzeko joera handia erakutsi zen, eta aurtengo lehen hiruhilekoan ere jarraipena izan du joera horrek. Zehatzago adierazita, %5aren inguruko hazkundearen ondoren, %2,9 hazi zen iazko laugarren hiruhilekoan, eta %1,6, berriz, aurtengo lehen hiruhilekoan. Bilakaera horren atzean dauden arrazoiak hainbat dira: igurikimenek okerrera egin dute, bai barruko merkatuan bai ingurukoan; dinamismoa galdu da EAEko produktuak eskatzen dituzten herrialdeetan; interes tasen igoerak finantzazioa garestitu du eta egin beharreko proiektuen errentagarritasuna murriztu du, etab. Inbertsioaren bi

osagaiek puntu bat baino zertxobait gehiago murriztu dituzte beren aldakuntza tasak aurreko urteko hiruhileko beraren aldean. Ekipamendurako ondasunetan egindako inbertsioa %2,4 hazi zen urte batetik bestera, eta gainerako inbertsioa, berriz, %1,1. Bi zifra horiek urrun daude 2022an lortutako batez bestekotik.

Nahiz eta euroaren eremuaren hazkundera moteldu egin zen aurtengo lehen hiruhilekoan (%1,8tik %1,0ra igaro zen), EAEko enpresentzat garrantzitsuenak diren herrialde batzuek bizkortze esanguratsua izan zuten. Hori da, besteak beste, Espainiako, Frantziako, Italiako eta AEBetako merkatuen kasua, Alemaniako narriaduraren aurrean. Ondorioz, kanpora bidalitako ondasun eta zerbitzuen esportazioak eta inportazioak aurreko hiruhilekoan baino gehiago hazi ziren, eta BPGaren hazkunderari lau hamarren ekarri zizkieten. Kopuru hori esanguratsua da aldagai horrek Euskadin erregistratu ohi dituen balioetarako. EAE, euroguneko batez besteko puntu erditik gertu dago, baina urrun dago Espainiako ekonomiari ekarri zizkion 2,5 puntuetatik eta Europar Batasunean jasotako 0,9 puntuetatik.

BPGaren hazkunderari egindako ekarpen hori balio errealetan %6,3 hazi ziren esportazioek eta %5,4 gehitu ziren inportazioek eragin zuten. Unean uneko preziotan, igoerak %14,2 eta %13,5 izan ziren, hurrenez hurren, eta tasa horiek agerian uzten dute oraindik prezioek kanpo merkataritzaren zifretan duten garrantzia, nahiz eta horien leuntzea gero eta nabarmenagoa izan. Guztira, lehen hiruhilekoko esportazioen balioa 16.523 milioi eurora iritsi zen, serie historiko osoko kopururik handiena delarik. Beste aldetik, inportazioek 16.734 milioi euroko zifra izan zuten guztira, eta horrek ere marka berria ezarri du seriean. Zenbaki horiek adierazten dute kanpo merkataritza oso orekatuta dagoela eta saldoa negatiboa dela, baina txikia (211 milioi euro inguru).

Esportatutako guztitik, kopururik garrantzitsuena atzerrira bideratutako ondasunei dagokie, 8.956 milioi eurora iritsi baitzen. Kopuru hori 2022ko bigarren hiruhilekoko emaitzak soilik gainditzen du (9.140 milioi euro), eta aurreko urtean erregistratutako kopurua baino %21,2 handiagoa da. Beraz, merkatu nagusietan dezelerazioa bizi den arren, atzerrirako esportazioen hazkunde erritmoan egonkortasun handia nabari da, azken zazpi hiruhilekoetatik seitan %20aren inguruko hazkunde tasak jaso baitira. Horietako batzuetan, prezioen igoerak garrantzi handia izan zuen emaitzan, eta beste batzuetan, berriz, batez ere saldutako kopuru handiagoaren ondorio izan zen.

Atzerrira esportatutako guztitik energiaren salmenta deskontatzen bada, 2023ko lehen hiruhilekoan marka berria ezarri da, 8.452 milioi euro salduta. Hain zuzen ere, erregai mineralak izan ziren, atal garrantzitsuenen artean, hiruhileko horretan salmenten balioa murriztu zuen bakarra (-%13,2), saldutako kopuruak behera egin baitzuen (-%6,0), zazpi hiruhilekotan jarraian

aparteko balio hazkundeak izan ondoren. Igoera horiek eskari handiaren eta nazioarteko merkatuetako prezioen igoeraren ondorio izan ziren.

Esportazioen hobekuntzaren oinarria garraio materialaren salmenta izan zen, lehen aldiz hiruhileko batean saldutako 2.500 milioi euroak gaintu baitzituen, alegia, aurreko urtean baino %37,9 gehiago. Makina eta tresnen salmenta ere esanguratsua izan zen, 1.534 milioi euro guztira eta %24,7ko aldakuntza tasarekin. Egitura esportatzailean pisu handiena duen beste atala, metal arruntak, 1.971 milioi eurora iritsi zen, baina urte arteko hazkundera (%4,3) batez bestekotik urrun geratu zen. Azkenik, nekazaritzako produktuen salmentak gora egiten jarraitzen du (%52,6).

Salmentak eremu geografikoen arabera banatzeak hautsi egiten du aurreko aldietako joera; izan ere, tasak antzeko erritmoan hazten ziren herrialde garatuetan eta gorabidean dauden ekonomietan. Aurtengo lehen hiruhilekoan, igoera ia osoa ELGAko herrialdeetan gauzatu da, eta garapen bidean dauden herrialdeetarako salmentak, berriz, urtebete lehenago izandakoaren oso antzekoak izan ziren. Zehatzago esanda, ELGAri egindako salmentak %25,0 hazi ziren, baina gainerako herrialdeetara bidalitakoak %1,2 baino ez ziren gehitu.

ESPORTAZIOEN HELMUGA

Urte arteko aldakuntza tasak eta mila euro

	2021	2022	2022			2023	
			II	III	IV	I	I
GUZTIRA	23,0	26,8	43,0	23,8	19,0	21,2	8.956.292
ELGA	23,9	27,1	44,0	26,1	19,2	25,0	7.742.933
Eurogunea	25,9	27,3	43,9	24,6	18,0	16,6	4.945.028
Alemania	13,4	22,2	41,7	20,6	19,9	19,2	1.405.764
Frantzia	27,4	20,3	38,0	11,7	9,2	15,0	1.372.206
Italia	26,5	29,8	48,7	15,7	17,4	16,1	512.939
Erresuma Batua	26,2	17,0	52,5	7,1	14,7	41,2	597.483
AEB	16,8	41,9	57,6	34,7	45,7	62,6	756.588
ELGAtik kanpokoak	18,2	25,2	37,8	12,1	17,8	1,2	1.213.359

Iturria: Eustat.

EAEko enpresen bezero nagusia euroaren eremua da, atzerrirako salmenten erdia baino gehiago biltzen baititu, eta hazkunde nabarmena izan zuen (%16,6), batez bestekoa baino txikiagoa izan arren. Merkatu horretan nabarmentzen diren bi kategoriak garraio materialaren salmenta

(1.391 milioi euro) eta metal arruntena eta horien manufacturena (1.233 milioi euro) dira, bilakaera kontrajarriak izan baitzituzten. Lehenengo kasuan, lortutako hazkundera %31,9koa izan zen, eta bigarrean, berriz, geldialdia (-%0,1) hauteman zen.

Alemania izan zen, berriz ere, EAEko produktu gehien erosi zituen atzerriko herrialdea, 1.406 milioi euroekin eta %19,2ko igoerarekin. Salmenten hazkundera automobilgintzari lotutako ondasunetan oinarritzen da bereziki. Zehatz-mehatz adierazita, garraio materialak %35,4ko hazkunde tasa eskuratu zuen, eta plastikoek eta kautxuak, berriz, %36,6koa. Produktu kimikoek ere hazkunde nabarmena lortu zuten (%25,0), baina esportazioen egituraren barruan pisu txikiagoa izaten dute.

Frantziara bidalitako salmentak %15,0 handitu ziren aurtengo lehen hiruhilekoan, 1.372 milioi eurora iritsi arte. Esportazioen osiera Alemaniakoa baino banatuagoa dago, non batez ere automobilgintzan kontzentratzen den. Frantzian, ordea, metal arruntak, garraio materiala, makineria, kautxua eta erregaiak nabarmentzen dira, guztiak ere pisu handia dutelarik. Erregai mineralen kasuan, saldutako produktuen balioa aurreko urtekoa baino bi aldiz handiagoa izan zen, eta garraio materiala, berriz, %26,1 igo zen. Gainerako atalek urte arteko aldakuntza apalak izan zituzten.

Italiak bederatzi hiruhilekoz jarraian bi digituko hazkundeak lortu ditu; beraz, merkatu nagusietako bat bihurtu da EAEko enpresentzat. Lehen hiruhilekoan, herrialde horretara egindako esportazioak %16,1 hazi ziren, 513 milioi euroraino. Garraio materiala gero eta pisu handiagoa hartzen ari da herrialdeari egindako salmentetan, eta %87,6ko urte arteko tasa lortu zuen, aurreko hiru hiruhilekoetako emaitza onei jarraipena emanez.

Erresuma Batuak EAEko jatorriko nekazaritza produktuen kopuru handiak erosten jarraitzen du. Guztira, ia 600 milioi euro balio zuten produktuak esportatu ziren herrialde horretara, eta horietatik laurden bat lehen sektoreko produktuak izan ziren, aurreko urteko kopurua nabarmen bikoiztu zutenak. Horrek justifikatzen du guztizko salmentak %41,2 haztea. Garraio materialak ere emaitza ona izan zuen, %33,2ko urte arteko gehikuntzarekin. Pisua zuten gainerako atalek %20 inguruko igoerak lortu zituzten.

AEBek merkatu on gisa jokatu zuten berriro EAEko enpresentzat, 757 milioi euroko salmentekin eta %62,6ko hazkunde tasa batekin. Herrialdera bideratzen diren partida handien artean, makineriaren salmenta (%105,3) eta produktu kimikoena nabarmendu behar dira, azken hori orain arte garrantzi gutxikoa zena eta salmentak boskoiztu dituena. Garraio materialek (%39,0) eta metal arruntek (%40,2) ere tasa garrantzitsuak lortu zituzten. Aitzitik, erregai mineralen

esportazioa, pisu handia izan ohi duena, %10,4 baino ez da igo lehen hiruhilekoan, batez bestekoaren oso azpitik.

Garapen bidean dauden herrialdeetara zuzendutako esportazioak galgatu egin ziren 2023ko lehen hiruhilekoan, baina erregai mineralen atalean bakarrik balaztatu ziren (-%88,4), horrek aparteko portaera izan baitzuen iaz. Gainerako produktuen aldean, salmentak %26,2 gehitu ziren, eta tasa hori bat dator hiruhileko horretako esportazioen hazkunde orokorrarekin. Nekazaritzako produktuen salmenta nabarmentzen da, aurreko urteko kopurua hirukoiztu baitzuen eta pisu handiagoa hartu baitu salmenten egituran. Bi produktu talde nagusiek, hau da, makineriak (%19,4) eta garraio materialak (%32,4), emaitza onak izan zituzten.

Txina izan zen salmentak murriztu ziren herrialde bakarrenetakoa. Zehazki, lehen hiruhilekoan %19,3 gutxiago saldu zitzaion herrialde horri. Bereziki, murrizketa garraio materialean gertatu zen (-%42,9), bi partida nagusietako bat baita. Besteak, makineriak, emaitza ona izan zuen (%23,9). Gainerako atalen pisua aipatutako bi taldeena baino askoz txikiagoa da, eta intentsitate desberdineko tasa positiboak eta negatiboak txandakatu zituen.

Herrialde garatuek Errusiari ezarri dizkioten zigorrek herrialde horretarako esportazioak baldintzatzen dituzte. Aurtengo lehen hiruhilekoan, salmentak %50,2 murriztu ziren, eta zazpi hiruhilekoz jarraian jaitsi dira. Urte honen hasieran, 27 milioi euroko produktuak baino ez zitzaizkion saldu herrialde horri, batez ere makinak, eta horrek salmenten balioa %35,7 murriztu zuen.

Brasilek ere portaera negatiboa erakutsi zuen EAEko esportazioentzat (-%6,3), baina herrialdean saldutako 76 milioi euroak bat datoz merkatu horretan ohikoak izaten diren kopuruekin. Makineriak herrialde horretako salmenta guztien erdia baino gehiago biltzen du, eta %6,8ko jaitsiera izan zuen, baina ezin izan zen konpentsatu garraio materialaren ohiko portaera onarekin (%19,5). Metal arruntek ere ez zuten aldeko emaitzarik eskuratu (-%10,6) hiruhileko horretan.

Atzerritik inportatutako produktuen balioak %11,1 egin zuen gora aurtengo lehen hiruhilekoan, eta %7,7, berriz, tonatan; beraz, prezioek ez dute aurreko hiruhilekoetan erakutsi zuten paper erabakigarria izan. Guztira, inportatutako produktuen balioa 7.128 milioi eurokoa izan zen, kopuru garrantzitsua baita, baina aurreko hiru aldietakoa baino txikiagoa. Inportatutako erregai mineralak %18,6 hazi ziren, aurreko zazpi aldietako tasen oso azpitik, energiaren prezioak balio neurritsuagoetara itzultzen ari diren seinale. Gainerako produktuak %9,0 gehitu ziren. Garraio materialaren suspertzea nabarmendu behar da (%42,3), aurreko erregistroak modu garbi batean hobetzen baititu. Partida nagusietako bik portaera kontrajarriak erakutsi zituzten. Alde

batetik, metal arruntek eta beren manufakturek %11,8 murriztu zituzten erosketak. Bestetik, makineriak %22,2ko urte arteko hazkundea izan zuen.

Inportazioen jatorrizko herrialdearen arabeko banaketak adierazten du herrialde garatuetatik etorritakoen kopurua nabarmen hazi dela (%19,3) eta garapen bidean dauden herrialdeetatik ekarritakoa jaitsi egin dela (-%4,5). Diferentzia hori erregai mineralen jatorriak justifikatzen du, Ekuatore Ginean, Errusian eta Brasilen egindako erosketen ordez Mexikon, Norvegian, AEBetan eta Herbehereetan, besteak beste, kopuru handiagoak erosi baitira. Herrialde garatuen artean, nabarmentzekoa da erosketen jaitsiera Erresuma Batuan (%52,7), erregaiak gutxiago erosi direlako, eta Frantzia (-%3,3), metal arrunten, produktu kimikoen eta paperaren inportazio txikiagoagatik.

INPORTAZIOEN JATORRIA

Urte arteko aldakuntza tasak eta mila euro

	2021	2022	2022			2023	
			II	III	IV	I	I
GUZTIRA	34,1	39,7	51,1	46,1	22,5	11,1	7.127.682
ELGA	28,0	32,5	48,4	32,0	17,0	19,3	5.032.910
Eurogunea	28,5	22,3	30,3	19,5	10,8	14,8	3.210.073
Alemania	21,1	21,5	24,6	20,7	15,2	10,5	1.040.908
Frantzia	29,8	21,8	43,4	10,7	4,3	-3,0	605.148
Italia	34,8	15,7	21,8	14,1	4,3	7,1	351.759
Erresuma Batua	33,6	42,5	64,5	-20,5	3,7	-52,7	169.907
AEB	20,6	207,0	522,9	189,9	105,6	41,3	462.607
ELGAtik kanpokoak	48,8	54,5	56,8	73,7	34,0	-4,5	2.094.772

Iturria: Eustat.

Esportazioen eta inportazioen balioaren arteko aldeak 1.829 milioi euroko merkataritza saldoa utzi du aurtengo lehen hiruhilekoan, historiako bigarren handiena 2011ko laugarren hiruhilekoaren ondoren (1.854 milioi euro). Saldoa honela banatzen da: 1.195 milioi euroko saldo energetiko negatiboa, aurreko hiruhilekoetakoak baino pixka bat txikiagoa, eta 3.024 milioi euroko saldo ez-energetiko positiboa, historiako handiena. Saldo positiboa herrialde garatuekin lortzen da (2.710 milioi euro), eta garapen bidean dauden herrialdeekiko merkataritzak 881 milioi euroko balantze negatiboa izan du.

Prezioak, soldatak eta kostuak

Prezioen bilakaera aztertzen duten adierazleak goranzko joera atzean uzten hasi ziren. Horrela, eta BPGaren deflatoetik hasita, bi hiruhilekotan gora egin ondoren, %4,6an kokatu zen aurtengo lehen hiruhilekoan, aurreko urteko itxierarekin alderatuta bi hamarren beherago. Egia da deflatoerek oraindik ere erregistro garrantzitsuak erakutsi zituztela, baina bai kontsumo pribatuaren deflatoea, bai kontsumo publikoarena eta bai kapital eraketa gordinarena murriztu egin ziren aurreko hiruhilekoaren aldean.

Beste aldetik, KPIak, energiaren prezioen jaitsierari esker, iazko erdialdean erregistratutakoak baino igoera apalagoak izan ondoren, apirilean berriro egin zuen gora (%4,2). Igoera hori oinarrizko efektu baten ondorioz gertatu zen; izan ere, gobernuak neurri jakin batzuk hartu zituen aurreko urteko aldi berean, baina aurten ez ziren aplikatu eta bere garaian inflazioaren gorakada murrizten lagundu zuten. Hala eta guztiz ere, maiatzean, datuak ditugun azken aldian, prezioen igoera berriro apaldu zen (%3,4), elikagaiak aldakuntza tasa altuak izaten jarraitzen duten arren.

KONTSUMOKO PREZIOEN INDIZEAREN BANAKETA

Urte arteko aldakuntza tasak eta ekarpenak

	2021	2022	2022		2023	
			IV	I	Maiatza	
Inflazio osoa	3,1	8,1	6,3	4,9	3,4	
Azpiko inflazioa	1,0	5,1	6,2	7,4	6,4	
- Elikagai landuak	1,4	10,2	14,7	16,4	14,3	
- Industria ondasunak	1,0	4,7	5,1	6,6	4,9	
- Zerbitzuak	0,7	3,3	3,6	4,2	4,0	
Hondar inflazioa	12,1	20,0	6,1	-4,0	-8,7	
- Landu gabeko elikagaiak	2,6	10,8	12,9	11,0	5,8	
- Energia	21,3	28,2	0,2	-15,2	-19,7	

Iturria: INE.

Inflazioaren moteltzea lagundu zuten faktoreen artean, gasaren prezioa dago batez ere. Hain zuzen ere, maiatzaren erdialdean, 30 eurotik beherako erregistroak ezarri zituen MWh bakoitzeko, aurreko urteko udan 300 eurotik gorakoak izan ziren bitartean, eta materia horren biltegitratzea nahiko maila altuan dago. Era berean, kontsumoa moteltzeko eta horniduraren

jatorria dibertsifikatzeko hartutako neurriek eta neguan izandako tenperatura leunek lehengai horren prezioak nabarmen murriztea eragin zuten.

Era berean, petrolioaren prezioak ere behera egin du hilabete hauetan, baina gasarenak baino gutxiago. LPEE eta beste herrialde batzuek adostutako ekoizpenaren murrizketak ez zuen eragotzi petrolio gordina 80 dolarretik beherako balioetan mantentzea, apirilaren erdialdean 90 dolarren bueltan ibili ondoren. Erakunde horrek ez zuen lortu prezioa igotzeko helburua, eskariak ziurgabetasun ekonomikoaren, inflazioaren eta interes tasen azken igoeren aurrean duen ahuleziaren ondorioz, eta agian baita herrialde ekoizle batzuek adostutako murrizketarekin duten konpromiso faltagatik ere.

Euskadiren kasuan bezala, euroguneko inflazioa normalizatzeko bidean da, aurreko hileko %7,0tik maiatzeko %6,1era igaro baita. Horrela, udazkenean hasitako beheranzko joerak bere horretan jarraitu zuen, errusiarrek Ukraina inbaditu zutenetik izandako mailarik txikiena ezarriz. Moteltzearen atzean energia dago, gasaren kotizazioa Holandako merkatuan, Europako erreferentzia, duela urte eta erdi pasatxoko mailetara jaitsi baitzen, KPIaren gaineko presioa arinduz. Era berean, beste elementu batzuek prezioak baldintzatu zituzten, hala nola hornidura kateetako botila lepoak, eta leundu egin ziren.

Inflazioaren gainean dauden presio horiek pausoz pauso gutxituz joatea aurreikusten da, energiaren prezioek berriki izan duten merkatzea gainerako produktuetera lekualdatzen den heinean. Hala, osagai energetiko horren oinarritzko efektu negatiboen eta datozen hilabeteetan lehengai energetikoek izango duten merkatzearen ondorioz, inflazioaren gorakada txikiagoa izango dela espero da, betiere prezioen hazkundeak soldata negoziatziora erabat eramaten ez badira.

Azpiko inflazioari dagokionez, adierazle horrek bere lehen moderazio zeinua erakutsi zuen apirilean, 2022ko urritik, urte arteko terminoetan neurtuta. Norabide aldaketa hori maiatzean baieztatu zen (%6,4), argitaratu diren azken datuak hileko horretakoak baitira. Hala eta guztiz ere, moteltzeko erritmoa oraindik ere apala da inflazio globalarekin alderatuta; izan ere, energia kostuen azken aldiko murrizketak gainerako ondasun eta zerbitzuen prezioetara aldatzen joan dira pixkanaka, eta atzerapen txiki batekin gertatu da. Hala, bai ondasun industrialek (%4,9), bai zerbitzuek (%4,0) aldakuntza tasa txikiagoak izan zituzten; landutako elikagaien hazkunde erritmoa ere moteldu egin zen, baina erregistro altuekin jarraitu zuten (%14,3), nahiz eta BEZa jaitsi zen.

Aitzitik, hondar inflazioak urte arteko aldaketa tasa negatiboa eskuratu zuen berriro, urte osoan zehar egin zuen bezala, produktu energetikoen prezioen beheranzko bilakaera horren ondorioz.

Aldakuntza hori are negatiboagoa izan zitekeen, landu gabeko elikagaiak oraindik ere aldakuntza tasa handiak jasotzen dituztelako, baina garestitzeko erritmoa murriztu dute, %5,8ra iritsi arte, 2022. urtearen hasieratik izandako erregistrorik txikiena baita.

EAE-KO KONTSUMOKO PREZIOEN INDIZEA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2021	2022	2022		2023	
			IV	I	Maiatza	Ekarpena
Indize orokorra (%100)	3,1	8,1	6,3	4,9	3,4	3,4
Janariak eta alkohol gabeko edariak (%19,2)	2,0	11,2	15,1	15,3	11,8	2,3
Edari alkoholduak eta tabakoa (%3,4)	0,4	4,3	5,2	7,6	7,5	0,2
Jantziak eta oinetakoak (%4,3)	1,0	2,9	0,8	2,9	2,0	0,1
Etxebizitza, ura, elektrizitatea, gasa (%11,7)	11,3	16,5	-1,1	-11,1	-11,3	-1,3
Etxeko hornidura (%6,1)	1,9	6,6	8,4	8,0	7,2	0,4
Medikuntza (%5,6)	0,8	0,6	0,7	1,9	2,9	0,2
Garraioa (%12,6)	7,3	11,2	6,2	1,3	-3,0	-0,4
Komunikazioak (%3,1)	-2,9	-1,2	-1,9	2,4	2,6	0,1
Aisia eta kultura (%8,5)	-0,1	3,2	3,6	3,5	4,6	0,4
Irakaskuntza (%2,7)	0,9	1,6	1,9	1,9	1,9	0,1
Hotelak, kafetegiak eta jatetxeak (%15,3)	1,2	5,9	6,9	7,0	6,0	0,9
Besteak (%7,4)	1,3	3,8	4,4	5,4	6,1	0,4

Iturria: INE.

Inflazio tasa handiena izan duten taldeen artean, lehen adierazi den bezala, elikagaiak eta alkoholik gabeko edariena nabarmendu behar da, %11,8ko igoerarekin, nahiz eta Espainiako Gobernuak hazkunde hori geldiarazteko neurriak hartu dituen. Aitzitik, KPI orokorraren beheranzko joeran gehien lagundu zuten taldeak etxebizitza (-%11,3) eta garraioa (-%3,3) izan ziren. Biak izan ziren aldaketa tasa negatiboak izan zituzten bakarrak, lehenengoak elektrizitatearen prezio txikiek lagunduta, eta bigarrenaren jaitsiera erregaien salneurrien beherakadak eragin zuen.

Energiaren kostuak garrantzia galduz joan direnez, industriako prezioak %1,9 merkatu ziren apirilean, eta aldaketa tasa negatiboetara itzuli ziren, bi urte baino gehiago erregistro positiboetan egon ondoren. Ekarpene negatiboetatik, energiaren prezioak nabarmendu ziren guztien artean (-%19,2), kontsumo ondasun iraunkorrekin batera balio negatiboak izan zituen bakarra izan baitzen (-%3,4). Gainerako osagaiek, bai prezioak eratzeko prozesuaren hasierako

faseei dagozkienak, bai ondorengo faseei dagozkienak, ezkutuko presioak oraindik ere biziak zirela erakutsi zuten.

Hitzarmen kolektiboek dagokienez, negoziazioak aurrerapen handia egin zuen; izan ere, lehen lauhilekoa amaitzean, hitzarmenak eguneratuta zituzten langileen ehunekoa %40,9 izan zen, azken urteetako ehunekorik handienetakoa baita. Jadanik joan den urtearen amaieran bizitasun handiz igotzen hasi ziren soldaten igoerak balio nabarmenetan jarraitu zuen eta inflazio handiaren ondorioz galdu zuten erosteko ahalmenaren zati bat berreskuratu ahal izan zuten. Zehazkiago adierazita, apirilean indarrean zeuden hitzarmenen artean, batez besteko igoera tasa %3,6koa izan zen, eta urtean zehar sinatutako hitzarmen kolektiboek, berriz, %4ko soldata hazkundeak jasotzen zituzten, aldi horretan Euskadiko inflazioa markatu zuen erregistro ia bera (%4,2).

HITZARMENETAN ADOSTUTAKO SOLDATA IGOERAK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2019	2020	2021	2022	2023 (*)
Indarrean dauden hitzarmenak:	2,0	1,7	1,2	4,1	3,6
- Urtean zehar sinatutakoak	2,3	1,2	1,1	4,1	4,0
Negoziazio esparruaren arabera:					
- Sektoreko hitzarmenak	2,1	1,7	1,0	3,9	3,5
- Enpresako hitzarmenak	1,8	1,7	1,9	4,7	3,7

(*) 2023ko apirilera arte erregistratutako hitzarmenak.

Iturria: Lan Harremanen Kontseilua.

Azkenik, lan kostuak osatzen dituzten atal guztiek gora egiten jarraitu zuten, baina aurreko hiruhilekoarekin alderatuta gorakadak pixka bat apaldu ziren. Zehatz-mehatz kontatuta, lan kostuak aurreko hiruhilekoko %5,4tik lehen hiruhilekoko %5,0ra igaro ziren, eta soldata kostuak, berriz, ia bi puntu apaldu ziren, aurreko %6,2tik oraingo %4,3ra. Beraz, lan kostuek maila altuei eutsi bazieten ere, oraingo ez litzateke inflazioak eragindako bigarren txandako ondorioz izango.

LAN KOSTUAK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2021	2022	2022				2023
			I	II	III	IV	I
Lan kostu guztiak langileko	4,9	2,7	2,1	1,5	1,7	5,4	5,0
- Soldata kostua guztira	4,9	2,9	2,5	1,5	1,0	6,2	4,3
- Bestelako kostuak	4,8	2,2	0,8	1,4	3,6	2,9	7,1
Lan kostu guztiak orduko	-2,4	2,6	-0,5	-1,1	6,3	5,1	3,4
- Soldata kostua guztira	-2,4	2,8	0,0	-1,0	5,5	5,9	2,6
- Bestelako kostuak	-2,6	2,2	-1,8	-1,2	8,4	2,6	5,5
Adostutako lan orduak	1,5	-0,5	-0,1	-1,0	-0,5	-0,5	0,1
Benetan lan egindako orduak	7,2	0,4	2,5	2,6	-4,3	0,3	1,6

Iturria: INE.

Arlo publikoa

Araba, Bizkai eta Gipuzkoako zerga bilketak ia %12 egin zuen gora aurtengo urtarriletik martxora arte, eta urrun dago Finantzen Euskal Kontseiluak 2023. urte osorako zenbatetsi zuen %5eko igoera apaletik. Gehikuntza tasa horren ondorioz, foru aldundiek aurreko ekitaldiko aldi berean erregistratutakoa baino 400 milioi euro gehiago jasoko dituzte, enpleguaren gehikuntza txikiak, soldatek (erritmo biziagoan igotzen hasi baitira) eta, azkenik, kontsumoaren bilakaerak (oraindik ere tonu ona erakusten baitu) lagunduta.

Hiru foru ogasunek portaera desberdinak erakutsi zituzten. Bizkaiak lortu zuen hazkunde tasarik altuena, %17,2 batekin, gainontzeko lurralde historikoetakoak txikiagoak izan ziren bitartean: Arabak %5,3ko gehikuntza lortu zuen eta Gipuzkoak, berriz, %2,6koa. Horiek horrela, Bizkaiak aparteko diru sarrera lortu zuen, egoitza fiskala Bizkaian duten Estatuko erakunde autonomoetako eta enpresa entitate publikoetako pentsiodunen atxikipenei lotutako Estatuarekiko auzi baten ebazpenaren ondorioz. Izan ere, hasiera batean Estatuak atxikipena egitea ezarri bazen, Itunaren Arbitraje Batzordeak foru aldundiaren aldeko epaia eman zuen duela gutxi.

Zuzeneko zergen (%12,7) eta zeharkako zergen (%9,8) bilakaera positiboak azaltzen du orain arte erregistratu den hazkunde bizia. Zuzeneko zergapetzean, PFEZak aurreko hilabeteetako hazkundera berretsi zuen (%11,2), eta lan atxikipenak izan ziren euskarri nagusia, duela urtebete

baino pertsona gehiago ari baitira lanean, eta, gainera, horietako askok soldata igoera handiagoak izan zituzten azken hilabeteetan. Joera positiboa izan zen, nahiz eta kuota diferentzialaren osagaiak bilketa metatu negatiboa eduki, egindako itzulketak aurreratzearen ondorioz.

TRIBUTU ITUNDUEN BILAKAERA (urtarrila-martxoa)

Mila euro

TRIBUTUAK	Diru bilketa		
	2022	2023	% Ald. 23/22
PFEZ	1.665.857	1.851.895	11,2
Sozietateen gaineko zerga	114.153	91.389	-19,9
Ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga	28.411	78.864	177,6
Oinordetza eta dohaintzen gaineko zerga	32.810	42.831	30,5
Ondarearen gaineko zerga	-7.683	1.966	-
Kreditu entitateen gordailuen gaineko zergak	-	-	-
Energia elektrikoaren ekoizpenaren gaineko zerga	156	99	-36,5
ZUZENeko ZERGAK GUZTIRA	1.833.704	2.067.044	12,7
BEZ	1.109.340	1.238.934	11,7
Ondare eskualdatzeen gaineko zerga	43.557	41.927	-3,7
Egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga	12.381	9.044	-27,0
Garraio bide jakin batzuen gaineko zerga bereziak	4.735	5.854	23,6
Fabrikazioaren zerga berezia	402.148	427.959	6,4
Aseguru sarien gaineko zerga	26.341	28.285	7,4
Joko jardueren gaineko zergak	1.103	1.437	30,3
Berotegi efektuko gasen gaineko zergak	1.568	1.412	-9,9
Iraungitako zergak	-3	25	-
ZEHARKAKO ZERGAK GUZTIRA	1.601.170	1.757.727	9,8
TASAK ETA BESTE. SARRERAK GUZTIRA	22.232	35.489	59,6
TRIBUTU ITUNDUAK GUZTIRA	3.457.106	3.860.260	11,7

Iturria: Foru aldundiak.

Aitzitik, sozietateen gaineko zergak %19,9 murriztu zuen diru bilketa, nahiz eta egia den lehen hiruhilekoan bere diru sarrerek oraindik ez dutela esanahi ekonomikorik. Lehenik eta behin, kontabilizatutako diru sarrerak zenbateko txikikoak dira, apirileko lehen ordainketa zatikatua bildu arte. Era berean, eskatutako itzulketa gehienak urteko lehen hilabeteetan egiten dira, bereziki azken ekitaldi honetan.

Zeharkako zergapetzearen figura nagusiari dagokionez, hau da, BEZari dagokionez, nahiz eta produktu batzuetan tasek behera egin zuten, hazkunde nabarmenak izaten jarraitu zuen (%11,7). Hileko diru sarreretan eta enpresa txiki eta ertaineten diru sarreretan prezioen igoeren intentsitate txikiagoa hauteman bazen ere, prezioen igoera handiena izan zuten produktuek BEZaren tasa jaitsi izanak areagotuta, zerga horrek bi digituko aldakuntza tasak eskuratu zituen oraindik.

Azkenik, zerga berezien bilketa %6,4 handitu zen, batez ere hidrokarburoen bilakaerari esker (%9,2), jarduera ekonomikoaren martxa ona islatzen jarraitzen baitu. Era berean, alkoholaren gaineko zergek erregistro positiboak izan zituzten (%32,7), baina horien pisua oso txikia da, eta tabako laboreen gaineko zergak 2022ko azken sei hilekoko tasa positiboak alde batera utzi zituen.

Arlo finantzarioa

2023ko martxoa gogoratua izango da orduan gertatu zen banku krisi globalagatik. Silicon Valley Bank (SVB) delakoak, AEBetako sektore teknologikoko mailegu emaile garrantzitsua baitzen, likidezia falta handia pairatu zuen gordailugile asko epe labur batean bere funtsak erretiratzen saiatu zirenean. Izua AEBetako beste banku erregional batzuetara hedatu zen, hala nola Signature Bankera eta First Republic Bankera, eta munduko finantza erraldoietako bat ere arriskuan jarri zuen: Credit Suisse.

Banku krisiaren eragin ekonomikoa ez da mugatu banku kolapsoek zuzenean eragindako herrialdeetara; aitzitik, finantza merkatuen eta nazioarteko merkataritzaren arteko konexioak mundu osora zabaldu zuen. Burtsak bortizki erori ziren. Eraginaren tamaina hain handia izanenez, jurisdikzio askotako banku arautzaileek, baita Erreserba Federalak, Kanadako Bankuak, Japoniako Bankuak, Europako Banku Zentralak (EBZ) eta Suitzako Banku Nazionalak ere, arrakastaz esku hartu zuten aparteko likidezia emateko, banku krisiak banku gehiagori eragin ez ziezaien.

Zurrunbiloen gertakari hori gaingitu ondoren, merkatuek egonkortze orokorra lortu zuten, eta lehen hiru hilekoko bilakaera ekonomikoaren adierazle eta datu positiboek eta enpresek aurkezten dituzten emaitzen denboraldiak egonkortze hori finkatu zuten. Egunkortasun horrek bide orriarekin jarraitzea ahalbidetu zien banku zentraleri.

Horiek horrela, EBZk bere erreferentzia tasa handitu zuen berriro, baina bere azken bi mugimenduak oinarrizko 25 oinarrizko puntukoak baino ez ziren izan, aurreko igoeren intentsitate handiagoarekin alderatuta, eta %4,0an finkatu zuen. Inflazio orokorrak azken hilabeteetan behera egin duen arren, prezioen gaineko azpiko presioak handiak izaten jarraitzen dute, eta, beraz, erakundeak etorkizunean igoera gehiago onartuko dituela iragarri du. Antzeko estrategia mantendu du Ingalaterrako Bankuak ere, 25 oinarrizko puntu igo baitu erreferentzia maila, eta %4,5ean utzi du, 2008tik izan den mailarik altuenean. Horrela, erakundeak interes tasen ondoz ondoko hamabi goraldi onartu ditu, eta ez du bukatutzat eman tasen altxaeren zikloa. Inflazioaren gaineko presioek bere horretan jarraitzen badute, igoera berriak beharko direla ohartarazi du.

ADIERAZLE MONETARIO ETA FINANTZARIOAK (I)

	2021	2022	2023					
			Urt.	Ots.	Mar.	Ap.	Mai.	Eka. (*)
Interes tasa ofizialak (%)								
Europako Banku Zentr.	0,00	2,5	2,5	3,0	3,5	3,5	3,75	4,0
Erreserba Federala	0,25-0,0	4,25-4,5	4,25-4,5	4,5-4,75	4,75-5,0	4,75-5,0	5,0-5,25	5,0-5,25
Japoniako Bankua	-0,10	-0,10	-0,10	-0,10	-0,10	-0,10	-0,10	-0,1
Ingalaterrako Bankua	0,25	3,5	3,5	4,0	4,25	4,25	4,5	4,5
Txinako Banku Popular	3,80	3,65	3,65	3,65	3,65	3,65	3,65	3,65
Brasilgo Banku Zentr.	9,25	13,75	13,75	13,75	13,75	13,75	13,75	13,75
10 urteko zor publikoaren errentagarritasuna								
Alemania	0	0	0	0	0	0	0	0
Espainia	77	109	104	104	102	105	107	93
Grezia	149	203	204	179	194	189	151	130
Erresuma Batua	115	111	106	119	118	140	191	192
Italia	136	213	199	184	181	186	182	160
AEB	168	127	125	128	117	111	136	123

(*) Ekainaren 15eko datuak.

Iturria: Espainiako Bankua.

Bestalde, Fedek %5,0-%5,25 tartean finkatu zuen bere esku hartze tasa, eta Europako homologoek ez bezala, hurrengo hilabeteetan geldialdia egin zezakeela adierazi zuen, inflazioak jaisten jarraitzen badu eta lan merkatua normalizatzen bada. Hala egin zuen ekaineko bileran, tasak aldatu gabe utzita, baina ez du baztertzeko uztailan igoera gehiago erabakitzea. Azkenik,

Japoniako Bankuak, gobernadore berriarekin ere, bere portaera egokitzaileri jarraipena eman zion.

Epe luzeko zor subiranoaren errendimenduak, martxoan eta apirilean sigi-saga ibili ondoren, ia aldatu gabe amaitu zuten erreferentzia aldia. Errendimendu horietako batzuk, Espainiakoa eta Greziakoa, esaterako, martxoaren hasieran banku sektorean izandako gorabeheren aurretik ikusitako mailaren azpitik daude. Alemaniak gerra egoeraren aurrean zuen kalteberatasunak eta datu ekonomiko txarrek Alemaniako bund-ari eskatutako errentagarritasuna handitu zuten. Aitzitik, gainerako ekonomien aurreikuspenik eta daturik onenek errentagarritasunak egonkortu zituzten, eta, ondorioz, arrisku primek behera egin zuten.

Hala, arrisku primek beheranzko bideari eutsi zioten eta, Espainiaren kasuan, aurreratutako hauteskundearen deialdiak ere ez du aldaketarik izan. Baina beherakada ez da Espainiako arrisku primara mugatzen. Alemaniako zorrarekiko diferentziala ere murriztu egin zen Greziaren eta Italiaren aurrean; izan ere, egunaren barneko maila oinarrizko 160 puntutik behera jaitsi zen, maila txikiena 2022ko apiriletik. Italiako arrisku primaren beherakadak argi erakusten du Alpeez haraindiko ekonomiaren egoera ekonomikoa ona dela.

Testuinguru horretan, nazioarteko burtsek ere gorabeherak izan zituzten banku zentralen zurrumbilo eta erabaki bakoitzarekin, baina, oro har, erantzun egokiak eman zituzten eta berdez mantentzea lortu zuten. Europako errenta aldakorreko merkatuak itxaronaldian sartu dira, eta hegakortasuna amildu egin da. Horri esker, indize nagusiek eremua berreskuratu dute. Eurogunea atzeraldi teknikoan sartu zela jakiteak ere ez zituen aldatu munduko burtsak. Horrela, Eurostoxx-50 indizeak %15,1eko irabaziak pilatu ditu, Atlantikoaren beste aldera hedatzen direnak (Standard & Poors %15,3 eta Dow Jones %3,8). Ibex-35 indizeak, berriz, 9.400 puntutik gora mantendu zen, %14,6ko errebalorizazioarekin.

Dibisen merkatuan, euroaren kotizazioa dolarrarekiko parekotasunetik behera hasi ondoren, dolarraren hegakortasuna areagotu egin zen AEBetako eskualde bankuek eragindako finantza krisiaren ondorioz, bai eta dolarraren inguruan sortutako tentsioen ondorioz ere, Kongresu estatubatuarrek herrialdearen zorpetze mugaren inguruan egindako negoziazioen ondorioz. AEBetako zorraren mugaren inguruko urduritasunak eta tasa ofizialen igoeren zikloa amaitu dela eta eurogunean oraindik ere bide luzea egin duela ikusteak euroaren truke tasari babesak eman diote. Halaber, moneta bakarrak babesak aurkitu zuen Europako ekonomiaren aurtengo aurreikuspenak hobetzeko, bai eta euroguneako banku sektorearen sendotasun erlatiboaren pertzepzioarako ere; izan ere, azken aldiko finantza zurrumbiloak ikaratu gabe maniobratu ahal izan zituen. Horrek guztiak euroaren balio irabazia sendotu zuen; izan ere, joan den irailean 20 urteko minimoak erregistratu ziren, truke tasa 0,959 dolarretara jaitsi zenean, eta %12,0ko balio

handitzea izan du dolarraren aldean. Euroak Japoniako yenaren (%6,6) eta libera esterlinaren (%0,5) aldean ere balioa irabazi zuen, eta horrek benetako truke tasa efektiboa indartu zuen.

ADIERAZLE MONETARIO ETA FINANTZARIOAK (II)

	2021	2022	2023					
			Urt.	Ots.	Mar.	Ap.	Mai.	Eka. (**)
Truke tasak								
Dolarra/euro	1,184	1,054	1,077	1,072	1,071	1,096	1,087	1,081
Yena/euro	129,9	138,0	140,5	142,4	143,0	146,2	148,9	152,86
Libera esterlina/euro	0,860	0,853	0,882	0,886	0,882	0,881	0,887	0,856
€ efektibo nomin.(%)	99,7	95,6	97,3	97,3	97,6	98,5	98,2	98,1
Burtsa indizeak (*)								
IBEX35	7,9	-5,6	9,8	14,2	12,2	12,3	10,0	14,6
Eurostoxx-50	21,0	-11,7	9,7	11,7	13,7	14,9	11,2	15,1
Dow Jones	18,7	-8,8	2,8	-1,5	0,4	2,9	-0,7	3,8
Nikkei 225	4,9	-9,4	4,7	5,2	7,5	10,6	18,4	21,3
Standard & Poors 500	26,9	-19,4	6,2	3,4	7,0	8,6	8,9	15,3

(*) Hazkunde metatua urte hasieratik hilekoaren azken egunera arte. (**) Ekainaren 15eko datuak.

Iturria: Espainiako Bankua.

Euriborraren bilakaerari dagokionez, hipoteka nagusien erreferentziazko indizeak gorantz jarraitu zuen, baina, EBZren igoerek bezala, hazkunde erritmoa moteldu zuen. Hala eta guztiz ere, %3,862ko batez bestekoarekin itxi zuen maiatza, hau da, indizearen hileko maximo berriarekin 2008tik, beraz, batez besteko hipoteka bat berrikustean hileko kuotan 290 euroko igoera izango da. Albiste ona hauxe da: Aurrezki Kutxen Fundazioak (Funcas) Espainiako ekonomian egindako azken aurreikuspen panelaren arabera, analistek aldaketa gutxi aurreikusten dituztela interes tasetan. Erakunde horren arabera, urtebeterako euriborra %4,0 ingurukoa izango da 2023aren amaieran, eta gero jaitsi egingo da, 2024aren amaieran %3,5etik behera geratu arte. Datozen hilabeteetako bilakaerari itxaron beharko zaio egonkortze hori berresteko.


Euriborraren etengabeko igoera horrek eragin zuzena eta negatiboa izan zuen higiezin merkatuan. Zehatzago azalduta, bost hilabetetan, 2022ko azarotik 2023ko martxora, dagoeneko lau hilabete metatu ditu hazkunde negatiboekin, eta etxebizitzaren sektorean agertokia aldatu dela erakusten du, 2022an azken hamarkadako urterik onena izan baitzuen, 22.900 etxebizitza kreditu baino gehiago sinatuta. Zehazki, aurtengo lehen hiruhilekoan 2022ko aldi berean baino

%5,0 hipoteka gutxiago sinatu ziren. Jaitsiera hori nabarmenagoa izan da martxoan, -%14,0koa, otsailean %6,0 murriztu ondoren, betiere urte arteko tasetan.

Etxebizitzen hipoteken bilakaera

Zenbatekoa (ezkerrean, milioiak) hipoteka kopurua (eskuinean, milak)

Euriborra 12 hilera



Iturria: INE eta Espainiako Bankua.

Euskadiko batez besteko hipotekaren prezioak ere zertxobait behera egin du. Lehen hiruhilekoan 158.000 euro ingurukoa izan zen, aurreko urteko hiruhileko bereko 165.300 euroetatik urrun. Datu horrek agerian uzten du etxebizitzaren prezioa, konfinamenduaren osteko erosketen boomarekin gora egiten ari den neurrian, zertxobait moteltzen ari dela merkatuaren hoztearen aurrean. Tasei dagokionez, etxebizitzen gaineko hipoteken %36,1 tasa aldakorrean eratu ziren martxoan, eta gainerako %63,9 tasa finkoan. Hasierako batez besteko interes-tasa %2,72 izan zen etxebizitzen gaineko tasa aldakorreko hipoteketan, eta %3,15ekoa, berriz, tasa finkoko hipoteketan.

Kredituak Euskadin izan duen bilakaerari dagokionez, bigarren hiruhilekoz jarraian beherantz egin du berriro (-%1,9), batez ere kreditu kaudimendunaren eskaririk ez dagoelako (baztertutako eskabideen ehunekoa handitu egin zen, batez ere etxebizitza erosteko familiei emandako kredituen kasuan) eta bankuak eragiketa berrietarako finkatzen ari diren finantza baldintzak gogortu direlako.

Zehazkiago azalduta, enpresak ez dira inbertsioko proiektuak egiten ari, eta zirkulatzailerean finantzaketa eskatzen dute, beren kostu operatiboak igo egin direlako iazko inflazioaren eta aurtengo urtean igarotako hilabeteen bilakaeraren ondorioz, prezioak nabarmen apaldu diren

arren. Halaber, familiek ere zorpetzea murrizten jarraitu zuten, hipoteken zati bat alde zurreretik ordainduta, Euriborrak etengabe gora egin zuelako. Kontsumorako kredituak soilik eutsi zion hazkunde tasa positiboari, baina atal hori bankuen balantzearen zati txiki bat besterik ez da eta berankortasunaren hazkunde txiki bat ekarri du berarekin. Horren guztiaren ondorioz, kreditu pribatuek %1,4 egin zuten behera eta, 2005eko hirugarren hiruhilekotik lehen aldiz, zorpetze maila 60.000 milioi eurotik behera jaitsi zen.

Sektore publikoak, pandemia betean ekonomia bultzatzeko bizi izan zuen hazkunde handiaren ondoren, zorrak gutxitzeko prozesuarekin jarraitu zuen, eta 9.136 milioi euroraino murriztu zuen zorpetzea, 2022ko lehen hiruhilekoan baino %5,1 gutxiago.

Ekoiaren kostu handiei aurre egiteko aurrezkiekin enpleguari eta zorpetzearen garestitzearekin gordailuen errentagarritasun falta gehitu behar izan zitzaion, eta horrek bezeroak animatu zituen dirua errentagarriagoak diren beste produktu batzuetara eramatera, hala nola inbertsio funtsetara edo Altxorraren letretara. Horrek guztiak eragin zuzena izan zuen gordailu pribatuen bilakaeran, bost urtean lehen aldiz jaitsi baitziren (-%1,9). Uzkurdura hori ez zen soilik eperako gordailuetara zabaldu, baizik eta hiruhileko bakarrean ageriko eta konturako gordailuek 2.276 milioi euro baino gehiago galdu zituzten. Gordailu publikoek gora egin duten arren, guztizkoaren balantzea negatiboa izan da (-%0,2).

KREDITU ETA GORDAILUAK

Urte arteko aldakuntza tasak eta milioi euro

	2021	2022	2022			2023		Aldea 2008-IV eta 2023-I	
			II	III	IV	I	I	Milioi €	Tasa
Kredituak	0,1	-0,5	0,9	1,9	-0,5	-1,9	69.087	-18.332	-21,0
Arlo publikoa	15,8	-0,7	7,6	0,1	-0,7	-5,1	9.136	7.108	350,4
Arlo pribatua	-1,9	-0,5	-0,1	2,2	-0,5	-1,4	59.951	-25.440	-29,8
Gordailuak	4,7	1,5	3,3	2,6	1,5	-0,2	95.976	19.632	25,7
Arlo publikoa	53,1	5,3	23,4	10,9	5,3	16,0	10.250	4.516	78,8
Arlo pribatua	1,2	1,1	1,7	1,8	1,1	-1,9	85.726	15.116	21,4
Agerikoak	5,1	2,0	4,7	4,1	3,0	-1,3	79.287	52.299	193,8
Eperakoak	-26,6	-23,9	-25,9	-24,9	-23,9	-22,9	6.439	-37.183	-85,2

Iturria: Espainiako Bankua.

Hala eta guztiz ere, EBZk interes tasen politika are gehiago gogortu dezake oraindik. Hain zuzen ere, gutxienez, uztailean beste igoera bat adostu dezake eta, ziurrenik, irailean beste bat onartuko duela aipatzen da, eta, aldi berean, iraganean krisia saihesten laguntzeko erabili ziren funtsak berriro inbertitzeari utziko diola. Aurreikuspen horiek betez gero, likidezia tentsioak ager daitezke sisteman, bankuak hura indartzera eta bezeroen saldoen ordainsari orokor bati bide ematera eramateko, eta, horrekin batera, gordailuen ordainketan espero den igoera. Gainera, EBZk berak adierazi du garrantzitsua dela tasen igoera bankuen aktiboen eta pasiboen etekin guztietan islatzea. Hau da, hipoteka eta kredituei prezioa igotzeaz gain, gordailuen ordainsaria handitzen hastea.

Aurreikuspenak

2023rako eta 2024rako munduko ekonomiaren hazkunde aurreikuspenek profil moderatua erakusten dute. ELGak ekainean argitaratutako aurreikuspen berrienen arabera, aurtengo eta datorren urteko hazkunde tasak %2,7 eta %2,9 izango dira, hau da, bi urteetako bakoitzean hamarren bat gutxiago, NDFk apirilean zenbatetsi zuenaren aldean, nahiz eta bi erakundeek ustez 2024an merkataritza globalaren bolumenak gora egingo duen. Aurrekoen osagarri, Consensus Forecasts erakundeak aurreikusten du ekonomia guztien ekoizpena %2,2 handituko dela 2023an eta 2024an, eta tasa horiek ez dira erosteko parekotasunean neurtu, truke tasaren arabekoak baizik. Horrek esan nahi du, munduko biztanleria %2,5 igotzen bada, biztanle bakoitzeko hazkundera pixka bat negatiboa izan daitekeela biurteko horretan. Bestalde, inflazioa pixkanaka murrizten joan da, baina analistek adierazi dute azpiko inflazioan iraunkortasun seinale batzuk egon daitezkeela.

ELGA osorako aurreikusitako hazkundera, erakundeak berak zenbatetsia, %1,4 izango da 2023 eta 2024. urteetarako. Badirudi finantza baldintzen gogortzeak lehen tentsioak eragin dituela ekonomia eta finantza arloetako orekan, batez ere AEBetan; izan ere, herrialde horretan hasi zen lehenengo prezioen igoera, zerga bultzada handi baten ondorioz, eta orain geldiarazi nahi du, interes tasak bat-batean handituz. Aurreikuspenen arabera, 2023rako hazkundera apala izango da, NDFk eta ELGak %1,6an zenbatetsi dutena, eta ahulagoa 2024an, %1,0 ingurukoa erakunde horientzat berentzat, eta horrek esan nahi du gainerako ekonomia aurreratuen dinamikaren oso bestelakoa izango dela.

Txinak, covid zeroko politika bertan behera utzi ondoren, hazkunderaren %5eko muga gainditu dezake berriro, 2023an 2024an baino errazago, ELGaren kalkuluen arabera. Beste ekonomia garrantzitsu batek, hau da, Indiak, bere ekoizpena %6tik gorako tasetan handitu dezake datozen urteetan, NDFk gorabidean dauden eta garatzen ari diren ekonomientzat espero duen hazkundera, %4ko tasekin, nabarmen gaindituz.

EKONOMIA AURREIKUSPENAK

Urte arteko aldakuntza tasak

	BPG			Kontsumoko prezioak		
	2022	2023	2024	2022	2023	2024
Munduko ekonomia	3,0	2,2	2,2	7,3	5,4	3,6
AEB	2,1	1,3	0,5	8,0	4,1	2,6
Kanada	3,4	1,2	1,0	6,8	3,7	2,3
Japonia	1,0	1,1	1,0	2,5	2,8	1,5
Eurogunea	3,5	0,6	0,9	8,4	5,4	2,4
Europar Batasuna	4,3	0,7	1,4	9,6	6,2	2,9
Alemania	1,8	-0,2	1,1	6,9	6,0	2,5
Espainia	5,5	1,8	1,5	8,4	3,7	2,9
Frantzia	2,5	0,6	0,9	5,3	5,3	2,7
Herbehereak	4,5	0,8	1,1	10,0	4,2	2,8
Italia	3,8	1,0	0,8	8,2	6,1	2,5
Erresuma Batua	4,1	0,1	0,8	9,1	7,3	3,2
Asia Pazifikoa	3,3	4,2	3,9	3,2	2,7	2,4
Ekialdeko Europa	1,0	1,0	2,5	22,5	14,9	9,2
Latinoamerika (Venezuela ezik)	3,6	1,1	1,8	15,7	17,2	13,2

Iturria: Consensus Forecasts (2023ko ekaina).

Europar Batasunean 2023rako eta 2024rako egindako hazkunde aurreikuspenak pixka bat igo dira berriro, neguan berrikuspen handiak egin ondoren. Horrela, Europako Batzordearen arabera, Batasuneko ekonomien multzoak %1,0 haziko dira 2023an eta %1,7, berriz, 2024an, eta, ildo beretik, euroguneak bere ekoizpen maila %1,1eraino igotzea lortuko du 2023an eta %1,6ra 2024an. Antzeko terminoetan, NDFk %0,8 eta %1,4 hazkundera aurreikusten du euroaren ekonomientzat aurtengo eta hurrengo urterako, eta ELGaren aurreikuspenak hamarren bat handiagoak dira urte bakoitzean. Aurreikuspen horiekin kontrastean, Consensus Forecasts-eko panelistenak %0,6an eta %0,9an kokatzen du moneta batasunaren hazkundera 2023rako eta 2024rako, hurrenez hurren.

Barne eskariak hazkunderari egiten dion ekarpen txikia da eurogunerako aurreikuspen gehienek faktore komuna. Zehazki, Europako Batzordearen ustez, kontsumo pribatuaren hazkunde ahula (%0,6, BPGaren hazkunderari hiru hamarreneko ekarpena eginez) izango litzateke Europako ekonomiaren hazkunde tasa txikiaren arrazoia; esportazioak, berriz, %3,1eko hazkunderarekin,

inportazio garbiak izango lirateke gehien laguntzen duen osagaia, bost hamarren 2023an. Kontsumoaren hauskortasunari eta esportazioen gorakadari buruzko ikuspegi horrekin bat egiten du ELGak, kontsumo pribatuaren hazkundea %0,2an zenbatesten baitu; esportazio garbiak, berriz, %0,7 haziko lirateke. Enpleguari dagokionez, profil baikorraren aurreikuspenei eutsi zaie, langabezia maila minimo historikoetan mantentzen baita. Langabezia tasek antzeko mailan jarraitzea espero da.

Inflazio handiak oztopo nagusia izaten jarraitzen du Europako ekonomien bilakaera makroekonomikoan. Europako Batzordeak hamarren batzuk igo du eurogunerako 2023an eta 2024an KPI harmonizatua %5,8ra eta %2,8ra igotzeko aurreikuspena, eta zifra horiek ELGaren (%5,8 eta %3,2) eta NDFaren (%5,3 eta %2,9) azken aurreikuspenetatik hurbil daude. Euroaren eremua osatzen duten herrialdeen datuak aztertuta, inflazio tasetan eta aurreikuspenetan desberdintasun handia ikusten da, Errusiarekiko hurbiltasun geografiko eta merkataritzakoen arabera nabarmen handiagoa, Belgikaren %3,4tik Eslovakiaren %10,9ra edo Baltikoko herrialdeen %9,0tik gorakoa. Analisten artean nolabaiteko adostasuna zegoen Europako Banku Zentralak interes-tasak %0,25 igoko dituela hurrengo bi bileretako bakoitzean. Lehen igoeraren aurreikuspenak bete egin dira jada ekainaren 15eko bileran, eta inflazioaren zenbatespen berriek urte bakoitzean hamarren bat baino ez dutela gora egin ikusita (%5,4 2023an, %3,0 2024an eta %2,2, berriz, 2025ean), igoera gehigarri bakar batekiko igurikimenez indarrean jarraituko lukete.

Hiruhileko arteko tasan %0,5eko hazkundea izan ondoren, hau da, %3,8 urteko tasan, iazko lehen hiruhilekoko datu txarrarekin alderatuta baitago, Espainiak 2019ko laugarren hiruhilekoko ekoizpen maila berreskura lezake aurtengo bigarren hiruhilekoan. Hori lortzeko, ehuneko bi hamarren soilik hazi beharko litzateke lehen hiruhilekoaren aldean, hau da, %1,4 aurreko urteko hiruhileko beraren aldean.

Cepredek maiatzean egindako aurreikuspenen arabera, Espainiak pandemia aurreko ekoizpen maila berreskuratzea lortuko luke bigarren hiruhilekoan, %1,5eko hazkundeari esker, eta tasa hori ahulduz joango da urtea igaro ahala. Esportazioek bultzada handia izango dutela aurreikusten da, hein batean baina ez bakarrik turismoaren sektorea suspertzeko prozesuaren ondorioz, eta horrek barne eskariaren ahultasuna konpentsatuko du, urteko %1,7ko hazkundea lortzeko. Nahiz eta zenbaki desberdinak izan, zentzu berean adierazten dira barne eskariaren hauskortasuna eta kanpo sektorearen indarra, ELGak ekainerako egin berri dituen aurreikuspenak (%2,1) edo Europako Batzordearenak (%1,9). Funcasen aurreikuspen panelaren batez bestekoak %1,7an kokatzen du 2023ko hazkundea, nahiz eta ohartarazi behar den CaixaBank Research eta BBVA Research bezalako ikasketa-zerbitzuek nabarmen handitu dituztela Espainiarako beren hazkunde itxaropenak, %1,3tik eta %1,6tik, hurrenez hurren, %2,0ra eta %2,4ra.

ESPAINIAKO EKONOMIARAKO AURREIKUSPEN EKONOMIKOAK (2023ko maiatza)

Urte arteko aldakuntza tasak

	2023			2023	2024
	II	III	IV		
BPG	1,5	1,0	0,8	1,7	2,5
Kontsumo pribatua	-0,2	-0,9	1,4	0,5	2,3
Kontsumo publikoa	2,4	1,3	0,8	1,5	2,6
Kapital eraketa gordina	0,1	1,6	6,1	2,1	5,6
- Taldeko inbertsioa	0,4	1,4	7,1	0,7	5,6
- Landatutako aktiboen inbertsioa	6,4	7,9	7,7	6,6	4,9
- Eraikuntzako inbertsioa	-0,9	1,4	5,3	2,6	6,1
Barne-eskaria	0,1	-1,1	0,0	0,1	2,7
Esportazioak	6,1	6,5	8,4	7,8	4,6
Inportazioak	3,1	1,3	7,0	3,8	5,5

Iturria: Ceprede.

Aurtengo aurreikuspenen berrikuspen horiek egin diren aldi berean, 2024ko aurreikuspenei buruz nolabaiteko apaltzea hasi da nagusitzen. Hori da aurreko paragrafoan aipatu diren bi azterketa zerbitzuen kasua; izan ere, alde batetik, BBVAK bost hamarren jaitsi ditu bere hazkunde aurreikuspenak, %2,1era, inbertsio osagaiaren aurreikuspenean murrizketa handia izan ondoren, eta, bestetik, CaixaBankek hamarren bat besterik ez du behera egin, %1,8an geratuz. Horrela, aurreikuspenen arteko aldeak murrizten dira, eta gehiago lerrokatzen dira Europako Batzordeak (%2,0) eta ELGAK (%1,9) zenbatetsitako hazkundearekin.

Euskadiri dagokionez, hiruhilekoko kontabilitatearen lehen hiruhilekoko datuek ez dute funtsezko aldaketarik eragiten 2023 eta 2024ko BPGaren hazkunde aurreikuspenetan. Hori dela eta, hamarren bat igo da aurtengo produkzioaren hazkundera, EAEko ekonomiak aurtengo lehen hiruhilekoan aurreikusi baino portaera hobea izan duelako, eta, horren ondorioz, bigarren hiruhilekorako aurreikuspenak zertxobait hobetu direlako. Datorren urteari dagokionez, hazkunderaren aurreikuspena bere horretan geratu da, %2,1ean, EAEko ekonomiaren potentzialetik hurbil dagoen tasa baita, jasandako shocken ondorio negatibo gehienak arindu ondoren; beraz, aurtengo azken hiruhilekoan, aurreko hiru hiruhilekoetan bilakaera gero eta biziagoa izan ondoren, %2,5etik gorakoa izan daiteke.

Barne eskariaren sendotasunak aurten eta datorren urtean ere EAeko ekonomiaren hazkundeari bultzada emango dio. Azken kontsumoko gastuaren bilakaera, oraindik ere nahi baino inflazio tasa handiagoak espero diren arren, positibotzat baino ezin da jo. Azpimarratzekoa da, bigarren hiruhilekoan familien kontsumoak izandako hazkundeak positiboa ez dirudien arren, familiek urteko bigarren hiruhileko honetan berreskuratuko dutela gaur egun bizi den prezioek gora egin aurreko kontsumo maila. Hau da, nahiz eta aurreko hiruhilekoetan kontsumo pribatuaren urte arteko hazkundera handiagoa izan, tasa horiek oraindik ere covid osteko errebotearen azken kolpeak islatzen zituzten neurri handi batean, eta 2022ko bigarren hiruhilekoan baino kontsumo maila txikiagoa.

EAE-KO EKONOMIARAKO AURREIKUSPENAK HIRUHILEKOKA (2023ko ekaina)

Urte arteko aldakuntza tasak

	2023			2023	2024
	II	III	IV		
BPG	1,3	1,6	1,2	1,6	2,1
Azken kontsumoa	1,1	2,0	1,0	1,5	1,7
Kontsumo pribatua	0,0	1,9	1,2	1,2	1,8
Kontsumo publikoa	4,9	2,1	0,6	2,5	1,4
Kapital eraketa gordina	2,3	5,3	2,2	2,8	2,7
Barne eskariaren ekarpena	1,4	2,8	1,3	1,9	2,0
Kanpo saldoaren ekarpena	-0,2	-1,3	-0,1	-0,3	0,0
Lehen arloa	-6,0	-11,1	4,0	-1,9	0,8
Industria eta energia	0,0	2,8	0,6	1,1	1,8
Eraikuntza	1,7	0,8	0,3	0,9	1,6
Zerbitzuak	2,1	1,6	1,6	2,0	2,5
Balio erantsi gordina	1,5	1,7	1,3	1,7	2,3
Ekoizkinen gaineko zergak	-0,6	0,4	0,4	0,4	0,3
BPG nominala	6,7	6,5	3,4	5,9	4,9
BPGaren deflatoarea	5,4	4,9	2,2	4,2	2,8
Lanaldi osoko lanpostuak	1,0	0,8	1,0	1,1	1,6
Landunak (BJA)	0,5	0,5	0,4	0,5	0,9
Langabezia tasa	8,2	7,6	8,3	8,2	7,5

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.

Ildo beretik, 2023ko hirugarren hiruhilekoko dinamika azken hiruhilekoetako prezioen shockaren susperraldi handiaren ikuspegitik ulertu behar da, eta hala islatzen du barne


eskariaren urte arteko %2,8ko hazkundeak. Esportazioen hazkundeak, hiruhileko honetan zein urteko gainerakoan, batez besteko historikoa baino nabarmen handiagoa izango da, nahiz eta kanpoko eskariaren ekarpena zertxobait negatiboa izango dela aurreikusten den. Aurtengo hirugarren hiruhilekoan inportazioen gorakada handiagoa izango da esportazioena baino, urte arteko ikuspegitik, eta horrek kanpo eskariaren ekarpen apur bat negatiboa ekarriko du. Era berean, kapital eraketa gordinaren urte arteko hazkundearen dinamikak (batez ere ekipamendurako ondasunenak) eta, sektoreen ikuspegitik, industriarenak eredu beraren ondorio dira, hau da, iazko hirugarren hiruhilekoan hiruhilekoen artean beherakada handia izan zen, eta hurrengo hiruhilekoetan maila hori pixkanaka berreskuratu eta gaingitu zen.

Aurreikuspenen arabera, lan merkatuak bilakaera ona izango du eta, BPGaren gehikuntzari egokituta, lanpostuak sortzen jarraituko du. Horrela, enpleguaren hazkunde tasa %1,1ekoa izango da 2023rako eta %1,6koa, berriz, 2024rako, eta horrek 11.000 eta 16.000 lanpostu inguru sortzea ekarriko luke, hurrenez hurren. Landunen kopuruak ere gora egingo luke: 5.000 pertsona inguru 2023an eta 8.000 pertsona 2024an.


2023ko eta 2024ko aurreikuspenak (I)

Urte arteko aldakuntza tasak

Barne produktu gordina



Enplegua



Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.

Langabezia tasa okupazioaren hazkundearen alderantziz murriztuko dela aurreikusten da, iazko batez besteko %8,5etik 2023ko %8,2ra eta 2024ko %7,5era. Lan merkatuaren zenbaki horien azpian dagoena da pertsona aktiboen kopurua landunena baino gutxiago haziko dela, eta,

horregatik, langabeen ehunekoa murriztu egingo da, eta, beraz, lanpostuen hazkundeak, lanpostu berriak sortzeaz gain, lan egindako orduen balizko igoera adierazten du.

Aurreikuspen horiek egiteko, Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak aurreko paragrafoetan egindako iruzkinetatik eratorritako hipotesi batzuk onartu ditu. Zehatz-mehatz adierazita, Espainiako, euroaren eremuko eta ELGAko BPGaren hazkundeak aurrez aipatutakoetatik hurbil daude. Halaber, egoerak aurreikusten du interes tasek gora egingo dutela aurten, eta oso beherakada txikia izango dutela 2024an. Bestalde, euroak dolarraren aurrean duen truke tasa indartu egingo da egungo mailatik (1,07 dolar euro bakoitzeko) 2023an 1,094 dolarreko batez bestekora arte. Euroaren balio irabazi hori datorren urtean ere mantenduko da, eta 1,118 dolarreko batez besteko truke tasa izango du. Azkenik, deflatoreek beheranzko joera txikia izango dute egoera horretan.

AURREIKUSPENAK EGITEKO HIPOTESIAK (2023KO ekaina)

Mailak eta urte arteko aldakuntza tasak


	2023			2023	2024
	II	III	IV		
Euriborra	3,4	3,5	3,5	3,2	3,1
Euro dolar truke tasa	1,076	1,105	1,124	1,094	1,118
Espainiako BPGa	1,5	1,0	0,8	1,7	2,5
ELGAren BPGa	1,2	1,1	1,3	1,3	1,4
Euroguneko BPGa	0,6	0,4	0,8	0,8	1,4
Espainiako kontsumo pribatuaren deflaktorea	4,0	3,1	3,0	3,8	2,6
Espainiako ondasunen esportazioen deflaktorea	1,4	-0,2	-0,3	1,8	1,9

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.


Eusko Jaurlaritzaren aurreikuspenak beste erakunde batzuen 2023rako aurreikuspenen urkilaren barruan daude. Hispalinkek egindako aurreikuspenik berrienak, altuena denak, EAEko ekonomiaren hazkundea %1,7an zenbatetsi du, eta zifra hori sail honek eta gainerako erakundeek (batez beste %1,5 inguru) dutena baino pixka bat handiagoa da. Horien aldean, Cepredek %1,0tik behera kokatzen du EAEko ekonomiaren produkzioaren hazkundea.

2023ko eta 2024ko aurreikuspenak (II) Urte arteko aldakuntza tasak

Aurreikuspen panela 2023



Aurreikuspen panela 2024



Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza (2023ko ekaina), Funcas (2023ko martxoa), BBVA (2023ko martxoa), Ceprede (2023ko maiatza), Laboral kutxa (2023ko urtarrila), Confebask (2022ko abendua) eta Hispalink (2023ko ekaina).

2024ari dagokionez, ziurgabetasun handiagoa, urrunagoko denbora horizonteari dagokiona, eta aurreikuspenen oinarri diren nazioarteko egoera makroekonomikoari buruzko hipotesiak, hazkunde estimazioak gehiago sakabanatzea dakar. Hala eta guztiz ere, aurreikuspen guztien arabera, datorren urteko hazkundera oraingoa baino handiagoa izango da, eta hazkunde hori %2ko mugatik gorakoa izango da.